

# **KULISKA SORTA**

**68'garren zenbakia**

K U L I S K A S O R T A

---

# AINTZIÑAKO IPUIÑAK

(EUSKALERRIAREN YAKINTZA'tik autatuak)

Egilea:

**RESURRECCION MARIA AZCUE**

*EUSKALTZAINDIAREN BABESPEAN  
BERE URRE-EZTAIETAN*

ITXAROPENA ARGITALDARIA - ZARAUZ

K U L T U R A S O R T A

AINTZINAKO IPUINAK

(EUSKALERRIAREN YAKINTZAREN BARRERAN)

RESURRECCION MAÑAN AZQUE

EUSKALITZAINDIAREN BARREAN  
KALIFORNIA

DEPOSITO LEGAL S. S. 616/68

Bear diran balmenakin

Copyright 1968 - El Autor

---

«Itxaropena argitaldaria» irar-lantegietan argitara emana  
F. Unzurruntzaga - Victor Pradera 2 - Zarautz

*Lanxide andiena izan dodan  
Mari Karmen Aberasturi ta  
Uribarri  
Neure ama maiteari.*

## AURKIBIDEA

Antoxin garbia ta zikiña ... ..	17
Arrastango Jentil-arria ... ..	18
Errege-zorria ... ..	20
Ardoari ezin itxi ... ..	23
Artzain izukaitza ... ..	24
Erregeren aurpegia ... ..	26
Berastegiko mulloa ... ..	28
Azelaingo zubia ... ..	30
Elurra ta sorgiñak ... ..	31
Erensugea ... ..	32
Emazte bat eta xaxtreia ... ..	35
Erbiduna ... ..	36
Eskola bat ... ..	38
Gernikako batzar baten ... ..	40
Errelari bat ... ..	43
Ezkontze baten austea ... ..	45
Ikazkina ta erioa ... ..	47
Yakileak ... ..	51
Jesus, Maria ta Jose! ... ..	52
Ikazkiñak yauregian edo oraintsuko Adan ta Eba ... ..	53
Iru alper ... ..	58
Iru egia ... ..	60
Iru burubide ... ..	62
Juan Migel ... ..	67
Kito ... ..	68
Kukuak nori jo ... ..	69

Iru estudiante ... ..	70
Lakuntzarren pertza ... ..	73
Kardulatza salatari ... ..	74
Lamia gaztanbera-zalea ... ..	77
Laminarango ta Arlabango lamien aututxo bi ... ..	78
Landaberroko apaltiarra ... ..	80
Martin abade ... ..	82
Legoia ta olagizonak ... ..	85
Maisu guztien maisua ... ..	87
Otsoa artzain ... ..	88
Mañañiren nigarrak ... ..	90
Mari Urraka ... ..	92
Martxoko oillarra ta eilalamiak ... ..	93
Mateo txistu ... ..	94
Mezäa ta ura ... ..	95
Peru arraizpe ... ..	96
Motzaila baten zorra ... ..	108
Lenengo aeroplanua ... ..	109
Predikagu batian ... ..	111
San Pedro ta eskribauak ... ..	112
San Martiñen estutasuna ... ..	113
Txarteletan mutil bat ... ..	116
Txindokiko Maria ... ..	117
Lamina bat eta Homeroren Kyklops (Ciclope) ... ..	118
Juan Migelen atorra ... ..	122
Zeru zaleak ... ..	123
Kukubel ... ..	124
Amezketarra ta Madriltarra ... ..	126
Txitxitera ta iñurria ... ..	130
Zulo bakotxari larakoa ... ..	131
Sei barrizale ... ..	132
Amen ... ..	137
Erroketxo ta ama ... ..	139
Guarin ... ..	143
Martin sugin ... ..	147
Tartalo ... ..	149

## ITZAURREA

*Euskalerriko ipuin zaarrak, belaunik belaun datozanak, euren zaartasan guztian, beti berri diranak. Zaartzaroan aurrera dijoazten atso-agurentzat aurtzaroko oroitzapenez beterik eta aurtzaroan bizi diraneri misteriosko mundu bat irikiaz. Beti zaar baiña beti berri.*

*Euskalerriko umeak irakurgai faltan daude. Beti gera aurrentzat gauza aundiak egiteko asmotan, liburu apainduak eskeintzen ditugu itzez, baiña urteak aurre-ra gauza gutxi argitaratzen dugu aurrentzako eran. Ta, aurrak, alegia, beti liburu berrien egarriz bizi diran aur oiek, liburu berdiñekin aurkitzen dira. Beraz, Azkuen ipuin auek ere ez ditugu berriak, noski, baiña orain arte zeuden bezela, lau liburu aundiri erantsirik, ez zeuden edozein aurren eskuetara eltzeko eran. Ta, orregaitik geunden bearturik beren bilduma bat gertatzera. Euskera erri-literaturaz ain aberatsa izanik ere, era one-tako liburuz urri dalako.*

*Ipuin bilduma au, irakurgai bezala premiazkoa izateaz gainera, Euskaltzaindiaren urre-etzaiak diralako,*

*bere sortzailleetariko eta lenengo buruzagi zanaren oho-  
rez, bere Euskalerrriaren Yakintza-tik autatu ditugu.*

*Izatez, Euskalerrriaren Yakintza lau liburu aunditan  
dago, gure erri-literaturatik Azkue berak jasoriko oi-  
tura, siniskera, ipuin, atsotitz, esakera, igarkizun, jo-  
las, kanta ta abar adieraziz, erderazko itzulpenarekin  
batean Madrilgo Espasa-Calpe, S. A.-k argitara ema-  
nak. Lauretatik bigarren liburua ipuin utsez egiña da.  
Guxtira, 241 ipuin ditu, ta beretarik 62 aukeratu di-  
tugu liburu au osatzeko. Ta, bijoaz gure eskerrak Es-  
pasa-Calpe, S. A.-ri bilduma au egiteko baimena eman  
digulako. Zeren Azkue zanak, egille eskubideak bere  
zituelarik, Madrilgo etxe oni emana zuen argitaratzai-  
lle bezala eskubide osoa.*

*Argitalpen onen izena, AINTZIÑAKO IPUIÑAK,  
Euskalerrriaren Yakintza'tik bereiztearren eman diogu,  
zeren bertatik ipuiak bakarrik jaso bai ditugu, ta Az-  
kue zanak, geienbat, bere denborako zaarrengandik jaso  
zitualako. Lenengo liburuaeren itzaurrean dion bezala,  
bertako geienak bere ama, eta Bilbo, Donostia eta Al-  
koz (Ultzama)-ko landerretxeetako atso-agurengandik  
bilduak direlako. Bilketa lanean, gaztetxo zalarik asi  
zan Azkue, joan zan mendearen azkenaldean, ta bere  
denborako zarrengandik bilduak diranex, eun urtetik  
gora izango dituzte bertako asko ta askok. Ipuin kon-  
talarien urteak ematen ez baditu ere, kontalariak joan  
zan mendearen lenengoetakoak izan bear nai ta nai ez,  
baldin mendearen azkenaldera landerretxeetan iasoak  
bai ziran. Beraz, euretariko askok aurtzaroan ikasiak  
zituztenex, ez dugu geiegikeririk esaten zenbait ipuinek  
eun urtetik gora ere izango dituztela aitortzean. Orrez  
gaiñera, nork daki aoz-ao noiztik etorriko ziran atso-agu-*



ra oien belarrietara? Errazoi auk aski dira AINTZINA  
NAKO IPUIÑAK izenburuz bataiatzeko.

Autapenak egitean ez diogu begiratu onenak izateari bakarrik, baizik ontxoenen artean gaiez desberdiñenak eta gaiñera euskalki guztietarik zertxobait arturik, Euskalerrriaren zabalera guztikoekin ornitzearren.

Azkue berak ipuin bakoitzaren ondorean kontalariaren izena eta erria ematen zituen, eta egoan berean utzi dugu. Berak jartzen zituan zenbait oar ere bere-berean utziaz, oso luzeak ziranen laburpen bat emanaz eta laburpen ondorean, beti, bere iturria emanaz, Euskalerrriaren Yakintza'ko iturria, bere zeatasunak jakin nahi dituanarentzat. Beste zenbait oar erantsi dizkiogu, geienetan geroztiko iturriren batzuek emanaz, azterketak jarraitu nahi dituztenen argibiderako.

Ezertariko ikuturik egin gabe jaso ditugu Azkue'ren ipuin auk. Euskalduneri begira argitaratzen dugunez, Euskalerrriaren Yakintza'k duen erderazko itzulpen gabe ipini ditugu. Ainbeste euskalkitatik bilduak diranez, zenbait ipuin irakur nekezekoak izango dira bear bezala ulertzeko, baiña gaur normaik arkitu lezake esku iztegitxo bat bertako itzak konprenitu al izateko, eta bide orretatik iñori ez dio kalterik egingo besteen euskalkiak ezagutzeak. Euskalkitik euskalkira dauden aldeak ez dira askok uste bezin aundiak.

Erri-ipuin auk ziran bezala jaso ote zituan Azkuek? Galdetuko dute, noski. Ezetz esango diegu. Lenengo liburuaren itzaurrean dionez (1), joskerak batzuetan eta itzak urrenko, bere erara aldatuak zituan kontalariaren agoetatik erdel kutsuz zetoxtenean. Erri berak era-

---

(1) Euskalerrriaren Yakintza, I, itzaurrean, 18/20 orrialdeetan.

*biltzen dituan joskera ta itz jatorragoekin konpondu bazituan ere. Zionez, gutxitan egiten omen zuen ori. Baiña gure iritziz, bere gisara aldatze orrek, bere alde ona ta txarra ditu. Txarra, oso txarra, etnografia ta iztegi agiri bezala, zeren etnografu batek iñoiz ere ez luke orrela jokatuko. Obeto esan, ez luke iñoiz ere orrela jokatu bear. Jakintzaren partetik, etnografiazko bilketa, agiri bizia izan bear du, egi-egizko dokumentua. Zeren erderazko itz eta molde oiek ere noiztik eta nola jakin bearrezkoak dira. Baiña bere alde ona du euskal literaturaren batasunaren aldetik begiraturik. Onetan, Azkuek bere moldeetara ipini zituan, bere Gipuzkera osotua'ri (2) ur emanaz.*

*Guk naiago genuan etnografiaren legeak eskatzen duan eran oiñarrituak baleude. Orretara, orain izango zan garaia irakurgai bezala agertzean literatura aburuz osatzea. Bere lana zientifikoagoa izango zan, ta orain, irakurgai bezala jartzean, literaturak eskatzen dituan aldakuntzak egin genezakean. Baiña, len orrela jokatu zuan ez, orain ez goaz ikuturik egitera, bearrezkoa ez deritxogulako.*

*Ipuinen ordenarik ez dugu gorde. Are geiago, lenago egilleak eman zion ordena, ipuin luzeen sailla eta ipuin laburren sailla, puskatu egin ditugu luze ta laburrak naasturik, alkarren ondorean irakurtzeko errezago deritxogulako.*

*Ipuinok, Euskalerrian sustraiturik arkituarren, jatorriz bertako iturburuetakoak ote ditugu? Batzuek bai, beste batzuek ez, ta beste asko ezin erabagi. Biltzailleak*

---

(2) Gipuzkera osotua, Bermeo, 1935. Liburu onetan bildu zituan Azkue zanak euskeraren batasunari buruz zituan iritzia. Gutxi gora-bera, bere teorizko iritzia oietara makurtuak egin zituan Azkuek ipuinetak arkitzen diran aldakuntzok.

*berak, tokiz, ematen dizkigu zenbait ipuiek beste erri ta beste garai batzuetakoekin duten zer ikusia, bigarren liburuaren itzaurrean (3).*

*Itxura danez, Peru ta Maria izenez Bizkai ta Gipuzkoetan ezagutzen diran ipuiñak ez zituan maite Azkuek, bibaizik ez dira ageri bereetan, «beste guziak aurkeritxoak baizik etziran». esanaz (4). Baiña, aurrentzat «aurkeritxoak» ere atsegingarriak dira. Aurrak bere irudimenezko mundua bizi bai du. Orrelako ipuiñen agiriz, Peru ta Maria'renekin, badira bi disku «Columbia»k orain pare bat urte argitalduak, Teri Ibarrola aulestiarren ipuiñez egiñak.*

*Beste askok bezala, Azkuek ere uste izan zuen arrotzak zirala gure folklorea biltzen asi ziranak. Bere iritziz Wentworth Webster (1828-1907) izan zan Euskalerriko lehen folklora biltzaillea Quelques notes archéologiques'en, geroago Basques legends (London, 1877) argitaratu zuana. Iritzi ori Julien Vinson'en (1843-1926) gandik zetorkion, zeren Vinson'ek Webster'i eskeintzen zion bere Le Folklore du Pays Basque (Paris, 1883), lenengo folklora biltzaillea zalakotzat. Vinson'en liburu onek oraintxu ikusi du bigarren argitalpena Paris'en bertan «Maisonneuve et Larose» etxean. Gaur oster, danok dakigu Oybenart'ek alde orretatik zenbait lan egin zituala, amezazpigarren mendearen lehen partean. Baiña euskal folkloraaren egiatzko lenengo biltzaillea*

---

(3) *Euskalerraren Yakintza*, II, 9/10 orrialdeetan.

Era berean arkituko ditugu Euskalerriko ipuiak beste errietakoekin duten zer ikusia Barandiaran'en "Eusko-Folklore" (Materiales y Cuestionarios), *Munibe*, tomo VI, 286/294 orrialdeetan. Sociedad de Ciencias Naturales "Aranzadi". Donostia, 1954.

(4) *Euskalerraren Yakintza*, II, 14-gn. orrialdean.

*Iztueta* (1767-1845) zala. Bear bada ez Webster eta Vinson bezin zeatza, baiña ezin ukatu bere lana folklorelari aburuzkoa ez danik. Gauza oni buruzko argitasunak neronek eman nituan igazko urtean *Iztueta*'ren jaiotzaren berreun urte betetzea zala ta (5).

*Iztueta*'ren lanak: Gipuzkoako dantza gogoangarrien kondaira (*Donostia*, 1824), izenburuak dion bezala dantzeri buruzko zertzeladaz egiña da, ta bere bigarren parte, Gipuzkoako soñu zar eta itzneurtu (*Donostia*, 1826) doñu ta kanta zarren bilduma, bi urte beranduago atera zan orduko zentzurarekin izan zituan eragozpenegaitik, ta azkenik Gipuzkoako probintziaren kondaira (*Donostia*, 1847). Azken onek kondairaren aldetik baliio askorik ez badu ere, 25-garren orrialdetik 255-erako tartea etnografiako bilketa utsez beterik du. Bere mami nagusia artzaintza, nekazaritza, ola-zarrak; orduko alkarte ta erakunde; abere, landare, lan tresna ta jolasketa iztegiak; ipuiñak, oiturak eta abar diralarik.

*Iztuetak* merezi du bere zati autatuekin liburu polit bat ornitzea, zeren bere oroitza gaurkotzearekin batean bere bilketak gaurko etnologia gaietan dabilzate-nen eskuetan ipinteko. Azkuek izkuntzaren aldetik bere parte ona atera zion, batez ere *Diccionario Vasco-español-francés dalako iztegi nagusirako* eta *Morfología Vasca'rako*. Oso gutxi *Cancionero popular vasco'n* (*Ikusi* 257-261 orrialdeak).

*Baiña* Azkue'ren lan luze ta sakonak aintzat artu ezkeru ez da arritzekoa zenbait gauzak iges egitea. Ez da gutxiagorako.

---

(5) *Ikusi: Iztueta, el precursor del folklore vasco*, "La Gran Enciclopedia Vasca", tomo II, 7-8 zenbakia, 427 orrialdea. Bilbao, 1967.

*Ex dut uste irakurleak Azkue nor zan ihardetsiko duenik, baiña ala ere bere egintza aundien oroiz merezi du bera ta bere lanaren berri labur batzuek ematea: Resurrección María Azkue eta Aberasturi Lekeition (Bizkaia) jaio zan 1864-an eta Bilbon il zan 1951-n. Euskeraren alde lanik geien egin duan gizona dugu, ta euskerak geien zor diona noski. Bere aita, Eusebio Maria, itxas-eskolako matematika irakaslea zan, ta orrez gaiñera euskal idazlea, Parnasorako bidearen egillea. Ama berriz ipuin kontalari trebea (orregaitik dijoaz Euskalerriaren Yakintza ta eskuetan duzun liburu au berari eskeiniak). Beraz, jatorritik etorren Resurrección euskal arazoetara grinatua.*

Bilboko Institutoan euskera irakasle 1888-garrene-tik. «Euskalzale» izeneko aldizkari bat argitaratu zuan bere kontura 1897-tik 1899-ra. Arturo Campión, Luis Eleizalde, eta Julio Urkijo'rekin batean, euskaltzain izendatua izan zan 1918-an, Oñatin egin zan Euskal Ikaskuntzaren Lenengo Biltzar nagusian, an bertan Euskaltzaindia sortzean. Eta urrengo urtetik Euskaltzaindiaren buru izendatu zan.

Teologian doktor maillakoa zan, Real Academia Española'ko numerokoa, Petersburgo'ko Zientzia Akademiakoa eta Paris'ko Izkuntzalari alkargokoa.

Bere lan nagusiak: Diccionario Vasco-español-francés (2 liburu), Bilbao, 1905, 1906. Cancionero popular vasco, Barcelona, urte gabe (aurten berriz argitaratzen da lan eder au). Morfología Vasca, Bilbao, 1925. Euskalerriaren Yakintza (4 liburu, euskeraz eta erderaz), Madrid, 1935, 1942, 1845 eta 1947. Lan oien erdia aski litzake gizon batek bere bizitza guztiko langintza ondo betea eukitzeko, baiña Azkue aundiarentzat ez

zan naikoa agiri danez, eta oiez gaiñera beste zenbait liburu idatzi zituan jakintza, arte eta literatura mailla-koak, ta euskal izkuntzaren azterketetatik aparte, ope-  
rak, antzerkiak, nobelak, eta abar idatzi zituan.

Geiegi luzatu gindezke emen bere bizitzari ta la-  
neri buruz zeazki jardungo bageña. Orregaitik, bere bi-  
zitza ta laneri buruzko zertzelada zeatzak nai dituanak  
ikusitza beza beste lan oietan: Azkue jauna zanaren gora-  
zarrez Euskaltzaindiak argitaratu zuan «Euskera» zen-  
baki berezi bat, II-garren tomoa (bigarren aldikoa),  
Bilbao, 1957. Eta Don Resurrección María de Azkue  
lexicógrafo, folklorista y gramático, L. Michelena, J.  
Caro Baroja eta A. Tovar. Publicaciones de la Junta  
de Cultura de Vizcaya. Bilbao, 1966.

Aurten, gure gizon aundi onen izena emango omen  
diote Bilboko kale bati. Gure iritzian oroitarri eder  
bat ere merezi du. Baiña, oraingoz, liburu onekin, Eus-  
kalerriko aurrak beintzat, ilburuko on bat jasotzen du-  
te, beren arbasoen ondore emaitzaz. Euskaltzaleen al-  
detik ere arrera ona izango balu ez da gutxi.

Eibar, 1968-ko epaillean.

Juan San Martín

*Euskaltzaindiaren idazkaria.*

## ANTOXIN GARBIA TA ZIKINA

Jesukristok eta San Pedrok neskaxa bat arkitu zuten iturri batean.

Ura eskatu zioten eta neskaxak antoxin zikin batean eman zien ura.

Jesukristok orduan esan zion:

—Eskerrik asko ta Jainkoak dizula senar on.

Joan ta joan, beste neskaxa bat beste iturri baten ondoan arkitu zuten.

Ura eskatu zioten ari ere. Ark antoxin garbi batean eman zien.

Jesukristok orduan esan zion:

—Eskerrik asko ta Jainkuak dizula senar txar.

San Pedrok au entzunda:

—¿Nola ori Jauna? —esan zion bere maisuari—  
Antoxin garbidunari senar txar, ta zikinean ura eman dizunari senar on?

—Ai Pedro, Pedro; zikinak onarekin ere ezтик bizimodurik aterako; garbiak txarrarekin ere bai.

*(Ataun'go Manuel Antonio Arruebarrenak kontatua.)*

## ARRASTANGO JENTIL-ARRIA

Itsu zegoen jentilen nagusia. Aldi artan lañoa ta euria etziran ezagunak, sortzeko zeuden. Gauerdiko basurez edo intzez bizi ziran lurrak.

Bein itsuak lagunai:

—Motillak —esan zien— usai bat aditzen det eta begira zazue bazterretara ondo.

—Itsasgainean alako zerbait ageri da.

—Atalai batzuekin nere betazalak zabal itzazue.

Ala egin zioten. Ernaga mendian gertatu zan au. Itsuak, betazalak zabalduak zeuzkala, onela jarraitu zuan izketan:

—Arnaga ernega dila. Pilistindarrak sortu dituk eta sekulako galduak gaituk. Zoko batera jaurti nazazue ni. Al dezuena egin zazue.

Jentilen nagusia orduan il zan, eta bere lagunak aren gorputza Arrastanera eraman zuen. Arrastanen dago jentil-arria, itsuaren obi-gainekoa.



Orduan aienatu ziran jentilak gure artetik. Arras-  
tanen jentilen ezur-bila oraintsu nortzुकbait ibili dira,  
baina alperrik.

(Ataun'go Manuel Antonio Arruebarrenak kontatua.)

Ipui au Barandiaran'ek ere badakar bere "Eusko-Folklore"  
orrietan. Orri oiekin egiñak, Donostiako Auñamendi Argital-  
dariak zenbait bilduma argitaratuak ditu *El mundo en la men-  
te popular vasca* izenez; lenbiziko liburuak, 1960 argitaratua,  
46-garren orrialdian dakar beronen berri. Dolmen batean omen  
du bere jatorria. (*Argitaratzaillaren oarra.*)

## ERREGE-ZORRIA

Erregina batek alaba ttipitto bat zuen eta bein batez orren orraxtatzen ari zelarik zorri bat arrapatu zion. Zorri hua il-bearrean nonbait gorde ta azi bear zela erabaki zuen, zenbat aunditzen zen ikusteko. Eta ala egunak gan ta egunak etorri, zorria bargosta bat bezalatsukoa egin zen.

Bainan zagartu ere egin zen eta gero il. Atsekabe aundia artu zuten ortaz erreginak eta alabak. Eta zorriaz zerbait oroitzapen in bear zutela, ta larrua kenduz danbore bat egin zuten. Gogoak ematen zabelarik danborea yotzen omentzuten ta zorriaz oroitu.

Bein batez yotzen ari zelarik, alabak bere amari erran zion:

—Nork igarri bear luke danbore au zorri-larruz egina dela?

—Eluke ez neork igarriko —inardetsi zion amak.

Solas ori aitaren begarrietara eldu zenean, ortan diru puskatan irabazteko bidea izain zuela bururatu zitzaion. Sari aundi bat eskaini zuen, danbore ura zertaz

egina zen igarriko zuenarentzat. Bertzeak, igarri ezin zuketenak diru zerbait eman bear izain zuten.

Eskainitako diru hura irabaziko zutelakotz, aunitz gizaseme ta emakume erregerengana gan ziren.

—Axeri-larruz egina da —erran zuen batek.

—Gatu-larruzkoa da —bertze batek.

—Oilo-larruz egin dute —bertzeak.

Neork ezin asmatu zezakean.

Egun aietan, ez andik urrun, bazeñ gizaseme bat burutik zerbait makur zuena. Gurasoen menean ez egon naiz, munduz mundu gan bear zuela erranik, etxetik atera zen. Bidean zoaielarik gizon bat etzanik arkitu zuen, begarriz lurrari emanta zegola. Zer ari zen galde egin zion.

—Belarra nola sortzen den entzuten ari naiz.

—Ez bide tuzu begarri txarrak. Zenbatean torriko zara nere mutil?

—Unenbertzean.

—Yarraiki bada neri.

Biak beren bidean zoazilarik bertze gizon bat oian batean arkitu zuten, arbola andi azkarrak, belari-izpiak baliran bezela, eskuz artu ta erroetatik arteratzen zituela. Unen indarrak ikusten bertzeak arrituz zer egin gogo zuen galde egin zioten.

—Amabi dozenaz zama andi bat egin ta errege-irira saltzera eraman nai nuzke.

Erosta (xoroxka) arek berari yarraiki nai bazion, sari ona emanen ziola erran zion. Arekin gan zen.

Bertze bat aurpegia garbitzen arkitu zuten.

—Zer ari aiz?

—Ementxe puxkat aldatuxe, irira gateko gertutzen. Bazkalorduko arat gan bearra naiz.

—Bazkalorduko! Berankara ezalduk?

—Zenbait orduko bidea bada ere, nere zanko aundi okin ordu-laurden batez sartuko naiz.

—Ik ere nere mutil izan nai alduk?

Baietz erran ta alkarrekin zoazin, Iriratu ziranean etzabilen an bertze solasik... erregek danbore bat bazuela, norik zertaz egina zen etzakiena. Lau gizon oriek erregeren etxe-ondoko ostatu batean sartu ziren eta nautsi erosta arek bere mutil begarri-ernea erregen etxe-aldeko leio batean yarrarazi zuen, erregen etxeko solasak entzun eta ari errateko aginduz. Gau-erortzean solas ok entzun zabezten:

—Au diruketa danbore onekin bildu duguna!

—Eta oinik bilduko ditugunak! Bada neork eztezake asmatu danbore au zorri-larruz egina dela.

Solas oriek mutilak nagusiari erran zition eta au biaramunean erregein yauregira gan zen, bertze aunitz bezela, danbore hura zertaz egina zen eritzia ematera. Eta lenbiziko alditik erran zuen:

—Errege yauna: danbore au zorri-larruz egina da.

Orduan Erregek anarteraiño bildu diru guziek etzituen aski eskaini zuen saria emateko, Gizon batek yasanala diru emanaz geroz, bertzea barkatuko ziola erran zien Erregeri. Errege untaratu zen; bainan bertzeak mutil azkar hura eramanez, arek yasanala diru ornitzeko etzuen Erregek yauregi xoko guzietan aski izan.

*Elbetea (Baztan) erriko Gurutz Goienezek kontatua.*

*Alemaniko Die Märchen der Weltliteratur (Munduko literaturaren ipuiak) kolezioan, Balkan'eko ipuien artean, bada bat Der Teufel, der das Flokfell (Arkakusu larrurik ezagutu ez zuan deabrua) izena duena. Ta badu Errege-zorri gure onekin aidetasun bat. (Ikusi Euskalerraren Yakintza. II tomoa, 128/129 orrialdeak).*

## ARDOARI EZIN ITXI

San Tomasetan etxe ta lurjabeari urteko errenta emon bear izaten dako ta estu egoten dira egun orretan maistarrak. Santomas batzuetan, estutasun onetanxe egozala, dirua aurreratzen asi bear zebela gogotan sartu jaken olagizon batzuri. Orretarako, ardoari iztea bear bearrekoa zala ta, urzale izatea erabagi zeben. Ardoa lenengo aitatzan zebanak artoa bat baba zeukan multa (isuna).

Bein, oi bezela, eguerdian babak jaten olagizonak zerautsela, beretako batek, irailleak (iyeleak), ardo gabe ezin jan zeban; ta edateko zeukan gogoa zelabait esan nai ta ardo-izena aitatu gura ez... ta onela agertu zeban bere guraria:

—A, mutillak! Onlakoa alakoakin ezkenuke txarra.

Maisuak gero:

—Onlakoa alakoakin? Gatzemaillea dijoala zatoakin.

Andik aurrera ardoari jarraitu eutsen ta dirurik gabe joaten ziran... Santomasetan etxera.

*(Elgoibar'ko Alzola auzoko Mariano Iriondo'k kontatua)*

## ARTZAIN IZUKAITZA

Etxegarate-mendian, Ataun aldian, Galardi izendun basoko txabolan mutil zar bat ardiakin egoten zan. Bein, Ataungo iru abade gazte, ikaratu bear zuela-ta, baso artara, Galardira, zuriz yantziak yoan ziran.

Arbola baten ganean irurak zedudela, oidu triste batzuek egin zituen.

Orduan mutil zarra txabolatik atera ta agertu zan.

—Itxoozue, mutillak —esan zien— zer ekarri dezue?

—Meza bat ofreziduta zeukagu ta aren faltan Purgatorioan gaudek —erantzun zien oidulariak.

—Mutillak, itxoozue —esan zien berriz artzainak—; itxoozue, babak jan bear ditut eta.

Txabolara joan zan ta andik berriz agertu zanean.

—Mutillak, dirurik badezue? —galde egin zien.

—Purgatorioan urte askotan gaudela, guk dirua nola euki?

—Dirurik ezpadaukazue, alperrik zabilzte, gure errian iru abade gazte bazaudek, dirurik gabe golperik jo nai eztienak. Iruditen zatak abade oriek iru demonio badiela. Alperrik ibilliko zaratea, zuen denbora guzian or Purgatorioan egon bearko dezue.

(Ursuaran'go Tomas Ayerbe gandik jaso)

## ERREGEREN AURPEGIA

Arzulo batean senarremazteak lau aurrekin bizi ziran. Amaika lauко egunean irabazten zituen aitak ikazkintzan eta ilean duro bat enparatzen zitzaien. Errege, eizean ari zan egun batez, ikazkinarengana eldu zan ta nola bizi zan galde egin zion.

—Guk —erantzun zion ikazkinak— basasagarrak eta ezkurak jaten ditugu; ta artale igarrak suten egi-ten dituzten opil txuriak salbatzen gaituzte.

Errege, ze irabazten zuen jakinez, arritu zan.

—Begira gizon; isilik iduki au, ez iñori eman zure irabazien berririk. Nere aurpegia ikusi arte esaten badezu, il eragingo zaitut.

Gau artan erregek ministroari aurpegira eman zion erreinuaren ondamendia.

—Gizon bat bada, orregatik, nere mendekoen artean, gizon langilea, ona, zori aunditan bere familiarekin bizi dana. Ark irabazten duena jakin eta aren zoriona noraño eltzen dan ikusita, bera bezelakoak beste gu-ziak izatea nai nuke.



—Nor da, Jauna, gizon ori?

—Nor dan? Igarri ezak erorrek. Igarri ezpadezak ordea, berrogei ta zortzi ordu barru ilko aut.

Ministroak ibili ta ibili zapla bilatu zuen ikazkina.

—Zer ari aiz emen? —galde egin zion.

—Lanean.

—Bakarrik?

—Ez; lau aur, andrea ta... seirok.

—Zer irabazten dek?

—Ez esateko ordena det, jauna. Erregeren aurpegia ikusi gabe esan ezkeror il eragingo nau erregek berak.

—Ori baino ezpada... erregeren aurpegia emen dek urrezko diru auetan. Artzak diruok eta zer irabazten dekan esan orain.

—Eta nik erregeri, kontua artzen badit, zer esateko?

Orduan ministroak ikazkinari erregeren aurrean esan bear zituen itzak erakutsita ikazkinak bere irabazitxoeri berri ministroari eman zion.

Erregeren belarrietara laxter eldu zan arzuloan ministroak berri au jakin zuaneko kontua ta asarre gorritan ots egin zion ikazkinari; lenbailen berarengana agertu zedilla. Agertu zan ta errege gogor egiten asi zitzaionean —Jauna— erantzun zion ikazkinak —berorren aurpegia ikusi arte eztiot nik iñori ezer esan.

—Nun ikusi dek nere aurpegia?

—Ona emen, jauna, amaika urre-diru. Ementxe ikusi det.

(Ataun'go Manuel Antonio Arruebarrenak kontatua.)

## BERASTEGIKO MULLOA

Berastegiko apeza etzegoen pozik bere eliztarrez. Aiek bide onera ekartzeko, bere arreba bitarteko zela, zerbait egitea asmatu zuen; eta bein pulpitura igan eta erran zien:

—Urbilen igandean etor zaitezte txiki ta aundi, erri guzia, meza nagusira, erran bearreko den zerbait, aundi den zerbait badut-eta.

Apezak nai bezala, meza nagusitan erri guzia bildu zen. Arimazaina pulpitura igan zen eta onela asi zuen bere itzaldia:

—Berastegiarrak: lengo egunean, emengo seme-alaben berri jakin bear nuela-ta, mundutik atera ta kanporalditxo bat egin nuen. Lenbizi zerura joan nintzen. Atea kask-kask jo nuen ta San Pedro atera zitzaitän, Ea zer nai nuen: «San Pedro —erran nion—, Bada emen berastegiarrik?» «Eztago alerik», erantzun zidan.

Purgatoriora joan nintzen urrena. Kask-kask ere jo-ta: «Bada emen berastegiarrik?» galde egin nuen. Ba-

dakizue Pedro Martin gizarajo hura nor zen? Huraxe beste berastegiarrik an etzela erantzun zidaten.

Azkenez infernura joan ta kask-kask atea jo nuen. Atera zen deabruari: «Bada emen berastegiarririk», galde egin nion. «Guztia dago berastegiarrez estalirik», eratzun zidan.

Apezak beste munduko bere ibileraren berri emanta, asarre gorri egin zien eliztarrai:

—Berastegiarrak: gaiztoak zirete ta Yainkoaren pazientzia akitu dezue. Orrengatik kastigu izugarria zuen gaiñera botatzera doa.

Jauna, erran zuen gero oiu andiz, eliza-sapaira begira zegoelarik.

—Jauna: bota zazu su ori. Kiskali ditezela berastegiar gaizto guziak.

Apezak erran bezela, eliza-sapaitik dir-dir-dir sutan mullo-zati bat erori zen eta eliztar guziak arriturik gelditu ziren.

—Bota geiago, Jauna —berriz apezak.

Eta bigarrenez ere dir-dir-dir mullo-zati aundi sutan erori zan.

Yendea alkar gainka elizatean kanporatu ezinik zebilen...

Apezak erran zuen:

—Bota geiago.

—Mulloa akitu da, jauna —erran zion sapai-gainetik bere arrebak.

*(Utzama'ko Justo Albizu'k kontatua)*

## AZELAINGO ZUBIA

Argin batek bere gain artu zuen zubi ori egiteko arazoa. Egin samar zeukanean, blaust! lur jo zuen. Bigarrenez ere asi ta giltzarria ezartaurretxoan len bezelaxe erori zan.

Orduan arginak amurratuz itz auek esan zituen:

Zubi auxe bukatua ikusteagatik, nere anima edozeiñi emango nioke.

Urrengo arratsean deabruak lanean asi omen ziran:

*Eskuz esku Labaingo arria  
ia akabatu degu Azelaingo zubia.  
Ea mutilak, eun ta bat mila gaituk,  
Arri baten paltan gaituk.*

Arginak, bere anima aien eskutan utzi bear zuela ikusirik, apaizarengana konjuru bila yoan zan. Apaiza etorri konjuratzen ta deabru guziak aienatu zituen.

(*Ernani'ko Maria Marķa'k kontatua.*)

## ELURRA TA SORGINAK

Lenbiziko elurra egin zuenean sorginak ikaratuta zulora yoan ziren.

Aita zar bat, zazpitan eun urte zituen aita egoten zen zulo artan, itsutua. Gauza zuri bat erori zela zerutik, esan ziotenean,

—Atera nazazute airean kanpora —esan zien zulo-koai —eta balanka batekin jaso nere betazal bat, gauza berri ori ikusi al izateko.

—Galduak gara, esan zuen zar onek elurra ikusi zuenean.

—Galduak gara, yaio da Jesus.

Bera ta bere lagun guziak, zar ta gazte, zulora marraxkaka yoan ta an il ziren.

*(Goldaraz'ko (Imotz) Andros Astiz'en aotik jaso.)*

Oarra: "Arrastango Jentil-arria" izenez arestian agertzen dan ipuiarekin zer ikusia du.

## ERENSUGEA

Errege bizi zen uri eder baten inguruan, leze andi bat zen eta leze artan suge izugarri bat, zazpi buruko sugea, bere izenez erensugea, gordetzen zen. Yende andia iresten zuen sugetzar onek. Erriak, erensugeakin kontratu bat (egiune) egin zuen; urtean neskaxa bat izanen zuela bertze yendeari parkatzekotz.

Zein neskaxa erensugeari emanen zitzaion yakiteko, zotzetara (suertetara) egin zuten etxeko yaun guziek, eta erregeren alabari yaurri zitzaion. Erregek orduan bere erresuma osoan yakinarazi zuen, erensugea-rengandik bere alaba bizirik aterako zuena, berarekin ezkondu ta erregegai eginen zuela.

Eguna eldu zenean, Erregeren alaba zuamo batean estekatu zuten. Ikusgura aunitz inguruetakoko zugatz-adarretan igan ziren. Bat ere etzen ordea lurraren gainean. Erensugea agertu baino lentxeago, artzain bat, zakurra ondoan zuela, toki artara eldu zen. Neskaxa estekatuari,

—Zer ari zara? —galde eginez.

Erregeren alabaren aotik ango berri izan zuenean, zugazt-gibelean eseri zen, zakurra ondoan zuela.

Erensugea burrunbaz bereala agertu zen. Artzainak orduan bere zakurrari: —Zesar lot akio— erran zion.

Eta zakurra pistitzarrari lotu zitzaion eta zatikatu zuen. Neskatxa bereala askatu zuen artzainak. Inguruetako zugatzetan ziren errege-mirabeak jautsi ta beren nagusi gaztea zazpi gonaz jauntzi zuten eta gizon gazte batek erensugearen zazpi buruak ebaki ta zorro aundi batean etxera eraman zituen. Zorroan sartu-orduko, artzainak buru bakoitzari bere miina kendu zion eta andere erregeren alabak zituen gonai zatitxo bana ere bai.

Yan-edan aundi bat eman zuen erregek, eztaia-aintzineko bazkaria. Maipuruan bera, errege, bere alaba ta alabaren senargaia zeuden yarriak.

Zazpi buruak zorroan eraman zituena zen senargai au. Neork, erregeren ingurukuok etzuen artzaina bazkaltiar izateko deitu. Azken-aldean eta bertzen isilik, zakurra lagun zuela, agertu zen hura ere. Iru aldiz igorri zuen bere *Zesar* plater baten bila.

Erregeren alaba, bera ikusiz, izutu zen, zakurra eza-gutu baitzuen.

Erregek zakur hura esteka zezatela agindu zien bere mutilei. Zakurra, bere nagusiarengana yoana zen orduko, artzainarengana. Au orduan yaiki ta, erregeren aintzinean agertuz itz auek erran zituen:

—Nire zakur onek purrukatu du erensugea. Ni naiz beraz, erregek agindu bezala, bere alabarekin ezkondu bear dudana.

Zalaparta izugarria sortu zen. Maiean yarria zegoen

senargaiak erensugearen zazpi buruak erratilu andi batean erakutsi zituen.

—Nik kalitu dut —erranez

—Buru oriek zerbait bear dute —gaineratu zion artzainak. Ona emen orien zazpi miinak, neskatxaren zazpi gonon zatietan gordeak izan ditudanak.

Bera izan zan neskatxa aren senar ta erregeren suin ta ondorengoa.

(*Dantzarinea (Ainoa)-ko seme Etxarteri entzuna.*)

Webster'ek *Basque legends*, liburuaren 33 gn. orrialdean jasotzen duana, oso polita da, eta onegandik oso desberdina, baita ere Vinson'en Donibane Loitzunen jaso eta *Le triple serpent* izenburuz argitaratua.

*Gaiñeratzen diogun oarra: Erensugeari neskatxa eman bearreko kontratuen ipuiak, modu askotara, geiago ere ba dira. Argitalpen onen zuzentzaileak Aramaioko Barajueneñ jaso du. Oiek, beren sustraiak Erdi Aroko "Pernada" eskubidean dituzte noski. Batez ere Arabakoak orren antza du.*



## EMAZTE BAT ETA XAXTREA

Emazte bat anizko xur eta ornikatu zen. Bear zion egun xaxtre bat xoxtra. Xaxtrearekin zer egunez fanen zen komenitrurik, tenprarik gal elezan, bezperatik dre-zatu ztion aparío guziak. Biramen goxan xaxtrea bere orduan fan zen. Desayunea emon zaun. Desayunatu eta erran zaun:

—Askaltu nai baduk, drezu diok.

—Ein —erran zaun xaxtreak.

Askaltu eta berriz erran zaun:

—Bazkaltu nai baduk, bazkariare drezu bakadak.

—Ein —erran zaun xaxtreak.

Bazkaltu eta aigaria ere drezu zakala erran zaun eta txikigatik aigal zokela.

—Ein —erran zaun xaxtreak.

Aigaltu eta xagi zen xaxtrea erranez:

—Arek aigaltuz gero eziola fiorentako xostan.

Artu aitzurrak besapean eta etsera fan zen, tripa onki beterik.

Baratu zen emazte zurra lan bilorik egin bage, gas-tu guziua eginik.

*(Bidangoze (Erronkari)-ko Mariano Mendigatxa'k emana.)*

## ERBIDUNA

Apaiz batek, eguratsa artzera zijoala, baserritar ezagun bat opatu zuen bidean ta oi bezela... «lanean ari gara?» edo olako zerbait esanda...

—Jauna —esan zion baserritarrak— arestian erbi bat bidali diot etxera.

—Gizona! Milla esker —esanez, bi pezetako dirua eskupean eman zion. Etxera yoan zanean, amari apai-zak:

—Gaur apari ederra, e?

—Beti bezelakoa —erantzun zion amak.

Biamonean, eguerdirako erbia gatzun-askan gorde zuelakotz, amabiak aldean sukalderatxo bat eginda, galde au zuzendu zion:

—Gaur bazkari ona, e? eta amak:

—Zergatik diozu, Martin? atzo bazkari ederra, orain bazkari ona...?

(Guraso gutik itz egiten dio seme apezari ika, zuketan geienak).

—Ezalzuen alakok atzo erbirik bidali?

—Nora? Gurera? Ezta goraintzirik ere.

Arratsaldean, aurreguneko bidean barna zijoan apaiza. Aitzurlariarengana berariz yoan zen eta galde au egin zion:

—Etzenduan atzo esan erbia bidali zenidala?

—Bai jauna; sasi-artetik irten zen eta erran nion:

Oa apaizarengana.

## EROSLA BAT

Arratsaldean, bidean zijoan apaiza. Aitzurlariarengana berariz yoan zen eta galde au egin zion: —Ezalzuen alakok atzo erbirik bidali? —Nora? Gurera? Ezta goraintzirik ere. Arratsaldean, aurreguneko bidean barna zijoan apaiza. Aitzurlariarengana berariz yoan zen eta galde au egin zion: —Ezalzuen alakok atzo erbirik bidali? —Nora? Gurera? Ezta goraintzirik ere. Arratsaldean, aurreguneko bidean barna zijoan apaiza. Aitzurlariarengana berariz yoan zen eta galde au egin zion: —Ezalzuen alakok atzo erbirik bidali? —Nora? Gurera? Ezta goraintzirik ere.

(Manuela Ernandorena'k kontatua (Bera'n?). Azkue ez da oroitzen ziurki.)

## EROSLA BAT

Arratiar batek, Bilbon txal bat salduta, topina bat erosi eban.

Lepoan ekarrela, Zubibarrin, sorbalda batetik bestera aldatueran, iru anka eukazala oartu zanean.

— E! — esan eutsan — Ik iru anka ta nik bi, ta neu oinez ta eu arrolepo. Etorriko az gura badok. Zea-nurin bizi nok, Elizaldean.

Eta bertan utzi eban burdinezko tresnatzarra.

Etsera eldu zanean, emazteari:

— Etorri da lapikoa? — itandu eutsan — Iru anka daukazan topina eder bat ezta eldu?

— Ez.

Biamamonean barriri Bilbora yatsi zan gure gizona, bezperako dendara.

Sartu ta batera:

— Amen dago nire lapikoa, —esanda— bati ora-tu eutsan.

Saltzaileak gedar. A bertan itzi eraginda, Zubibarrira bidali eban gizona topina-bila. Batari itandu, besteari galde, alperrekoak izan ziran bere aleginak eta esku utsean yoan zan etsera gure Erri.

*(Zaratamo'ko Txomin Azkoeta gandik yasoa.)*

## GERNIKAKO BATZAR BATEN

Gernikako batzar-etxea aldenez ta ikusguraz bete beterik egoan goiz baten, zadorlaria (sekretarioa), oi ebanez, gustiak entzuteko eran Mundaka lenengo aita-tuaz, aldunai banan banan dei egiten asi zan, bakoitzak bere ezaugarria maipurukoai erakusteko. Mendeja entzun eragin ebanean, Mendixako Piela (orduko Pielak orain alkate dira) mai-aurrera agertuzan —Ea paperok, Mendixa.

Kolkotik, bere aldun-izena ateraten ebilenartean, arto-zati bat eta iru sagar gezamin yausi dakasan Pielari lurrera. Gorputzari zirkinik ez arpegiari pariztarik eragin bagarik berak esan eban:

«Emen da Maria gureak  
niri gerturiko gosaria:  
iru sagar gezamin ta arto-zatia».

Barre-zantzoka asi ziran, euskaldun ta euskaldun-motz bere batzarkide guztiak. Lenengo batzarraldia

amaitu zanean, askok, yarraitu eutsen gure Piel oni ostatutzat artu eban ardantegira. Euren arteko barritsu samarrenak:

—Mendixa — esan eutsan —; azken egunean zuk emongo dautsazu ostatariari eskupekoa! !

—Bakotxak al dabena emongo dau.

—Mendixa —zirautsan beste batek— Bilbon gatzari arrak egiten eiddakoz ta zuk baedodakisu zezaz kendu al leikiozan.

—Orixe bai. Inoiz umerik egin bagako mandemearen esneaz, uraz soinekoen zetaka ta natuak legetxez, il daroaguz gatz-arrok.

Au entzueran, aldun batzuk alkarri zinuka zinoen: Nok nori yoko etedautsaguz bostak (1) geuk beroni ala beronek geuri?

—Mendixa: zuen baserritxoan ezaldago zu baino burutsuagorik?

—Bai ta ez gitxi. Arek barriz beste arazo andiago batzuetara zuzendu oi dabez. Zuekana neu, naizantxo au, bidaldu nabe.

Au entzunda, bat baino geiago gelditu ziran baserritar aldunari lotsa geitxoagoz begira.

Azken egunean gure Mendixar au ostatariagana isilean agertuta, itz auek esan eutsazan:

—Ekazu amaseiko bat, zeutzako mesedean izango da-ta.

Bazkalostean, kontua eskatu ebanean, aldun asko (beste ostatuetan egozan batzuk bere bai) zurt egozan adi-adi Mendixak zenbat emongo eban yakin gurarik.

---

(1) Esakeratxo au ta Mondragoe aldeko *bostak emon* erderazko "tomar el pelo" langoak dira.

Etxandereak kontua erakutsi eutsanean, lauzuriko ta marairaginokoa emonda gero, katanarrutik amaseiko gorri ederra aterata, mai-ganean ots zoli-zoli eraginaz.

—Ona emen nire eskupekoa —esan eban— Gizon yakitun aberats apainduok geiago emongo dautsue. Ni geiagora enaiz eltzen.

Batzuk, lotsarren edo, ontzako bana emon eieben eskupekotzat.

(Zaldua'ko Teresa N.-k kontatua.)

*Urte batzuk lenago Zaratamoko seme Txomin Azkoetak, beste ipuin batzuen artean, auxe bere, aldakuntza andi bagarik, edatsi eustan. Piel au Berangoko semea zala zinoan.*



## ERRELARI BAT

Arratian, beste ibar askotan legez, komentu txiki baten, bikariotzat, fraide zar bat egoan, bere komentutik matxinada baten ondoren aterarikoa.

Lukurreru itzala zan, irapazten euana gorde ta gorderikoa eralten ezekiana. Errelaria zan bera, zigarrozalea. Ezeuan, baiña, bat bere arean erosten.

Arratsaldera ezkerro palatuginen ebilen bategana oi zan egunean egunean.

Baserritarrak urrundik ikusi eban arratsalde baten ta:

—Gaur eztauat emongo bada— zinoan bere barrurako.

—Kaisio! Badaragoiok?

—Bai, badaragoiot.

Beste zerbait alkarri esanda gero,

—Tabako-orri puska bat ezetedauskak— itandu eutsan.

—Utxi (sic) (1) neutsan.

—Fumatuari utxi dautsala?

—Fumateari ez, emoiteari.

(Zaratamo'ko Txomiñ Azkoeta gandik yasoa.)

---

(1) Argitalpen oni oarra: *Utxi, Utzi, Laga Itxi*, sarriago erabilten da Bizkaian.

## EZKONTZE BATEN AUSTEA

Bi Oroz-Betelutar, zenbait urtetan ezkontuta zaudenak, elkarrekin ezin biziz, artsalde apal batez ilun nabarrean, beren apez jaunarengana fan ziren, gau erranez:

—Jauna, zuk elizaz ezkondu gindituzun bezala, gu-re ezkontza laxatu ta autsi daukezula xakin dugu. Gau egia balin bada, elkarrengandik lekutu ta berez bizi nai ginduke.

—Ezalduzie bakerik elkarren artean?

—Bakea? Infernuan bezalatsukoa dugu.

Apezak irria ezpainenetan zuela,

—Bai, ene maiteak, —erran zakote— orain infernuan bezala bizitzekotz ta zauren samurtasun ta asarrekin infernua geroko irabaztekoz obe duzue ezkontza len baino len autsi. Etorri zaitezte biar mezara, ezkontza goizean bezala ta eliza-atarian egon. Nik bear direnak eginen ditut. Biramun-goizean, meza-ezkilak xo zuenean, ezkondu gaiek beren aldeaixkidekin eliza-

-atarira bildu zire. Apeza, tresna ederrak xantzirik, eliz-  
-mutila gurutzearekin altzinean zuela, agertu ze; baita,  
bi ezkonduak bere ondoan belaunikarazirik, asi ere egin  
ze marmarozka, liburutik latinez leitzen zuelakoan ta  
berealaxe gizonari buruan eman zako isipuz kaska...  
geroxeago emazteari bertze bat. Kaskak azkar ta usu-  
tzen asi ziranean, nigarrez senar-emazteak galde egin  
zute:

—Gure ezkontzaren laxatzeko otoitz goiek anitz  
iraunen al dute?

—Nik au baizik eztakit bertzerik; bietatik bat ilar-  
tio ezkontzak iraungo duela.

—Goazen bada etxera ta ezkondu ginenean bezala,  
bakean ta luzaro bizi giten —erran zako— emazteari  
senarrak

—Gori (1) einez...kenduko duzue...orai ta geroko  
infernu.

Au erran ta apeza eleizara mezaren erratera sartu  
ze.

*(Iriberry (Aezkoa)-ko Maximino Iziz'ek kontatua.)*

---

(1) Emen gori, mugazandiko hori bezala da. H ordez G  
jarririk maiz gertatzen dan bezala; bereziki Saraitzun.

## IKAZKINA TA ERIOA

Etxola batean ikazkin bat, baba, talo ta gasna beste yakirik gabe, estu ta erremeski bizi zen. Bein bere afari puska egiten ari zela, atean norbaitek ots egin zuen.

—Nor da?

—Gau untako legorra nai nuke.

—Bainon nor zara?

—Ni Yainkoa naiz.

—Zuri legorra! Batzuk ondasunez beterik dauzkazu; besteak, egun guzian lan egin ta ere, yatekoa urri dutelarik. Ez, zoazi ortik.

Gero apurtto baten buruan Yainkoa bera itzuli zen ta atea yo zuen.

—Nor da?

—Gau ontako legorra nai nuke.

—Bainon nor zaitut?

—Ni erioa naiz.

—Zuri bai, gogotik. Zu guziakin berdin zara: naiz aberats naiz erremes, naiz aundi naiz ttipiekin.

Eta atea zabaldua afaria ere berak zuenetik eman zion, oatzea ere bai ta urrengo goisean gosaria. Erioak orduan eskerrak ta eskerrak emanaz,

—Zer nai duzu —galde egin zion— nik zuri egi-tea?

—Nik...nik... beti onela gabe, zerbait zabaltasun ta aisetasun izatea nai nuke.

—Zoaz bada errege-irira. Erregiña arras eri da. Aspaldion mirikuak eztakite zer egin hura sendatzeko. Sar zaitte an; ta ni burualdean ikus banaizu, segur ilen dela erraten al dabezu eta bere egitekoak bere-bereala in detzala. Oinen aldetik baldin baniz, emplasto zerbait nonnai yarrita bereala sendatuko dela erran dezakezu.

Ikazkina soineko oberenak yauntzita, al bezain poli-ki bere burua apaindurik, pozez ta arin iri artara gan zen ta erregin yauregira bere urratsak zuzendu zituen. An etzion neork sinetsi nai medikua zela, ezta erregina-gingana sartzen utzi ere; bainan arek uluka etzituen bakean uzten: erregina ikusi bear zuela, erregina ikusi bear zuela ta berriz ere gauza bera.

Erreget ulu ek entzun ta nor zen yakin zuenean nor zabilen galde egin zuen ta mediku zelakoa berarengana sarrarazi ta biak erreginain oatze-aintziner aurbildu zirenbertze an zabiltzen mediku zenbait lagun zituztela. Sendatzailen ingresti batzuk egin zituen: mingaina aterarazi, betazalak ikertu, pultsua artu... ta untan erioa eriarren oinetako aldean zakusen. Ikaskinak orduan.

—Nik eri au bereala sendatuko dut —erran zuen.

Artarako emplastogai batzuk eskatu zituen: ardo, lina-zi, zagi, errexirin... ta olako.

An ziren medikuek irri egin zioten. Erregek al guziaz ere eskatu zuen-guzia erakarrazi zuen; eta eria, gaitza eskuz kenduta bezela, sendaturik gelditu zen.

Medikuek orduan beren buruak aurturik ikusi zituztenean, etzakiten zer erran ta zer egin. Xoko batean elkarturik beren arteko zagarrena oatzean yar zedila erabaki zuten. Erregeri erran zioten gero:

—Zuk, errege yauna, mediku-otsean etorri zaigun gizontto orren deuseza zagutu dezazun auxe ta auxe in dugu, ta mana zazu ikustera etorri dedin.

Ikazkinak sartu ta lenbiziko begi-ukaldian erioa aren buru-aldean ikusita, ingresti-bearrik gabe,

—Bere bereala ilen da eri au —erran zuen.

Len baino ere irri-ajaja andiagoak egin zituzten oatzekoaren lagunak. Laster sartu zitzaizten irriak, beren laguna ondar-atsetan zagola oartu baitziren. Erregek bere emaztea sendaturik eta ikazkinak erran zuen bezala sendo zen-mediku zarra ilik ikusiz, mediku gusiek marmaraka oilduta yauregitik atera zituen.

—Zer nai duzu —erran zion gero ikazkinari—, nik saritzat ematea? Eta zer, emendik aitzina nere mediku izateagatik?

—Yauna, nik nai dudana? Aisa eta poliki bizitzeko bidea.

Geroztik ikazkina erregeren maian otorduak egiten zituelarik, baratze ta oianeko aritz amets bago artepean ematen zituen gozoki bein ere ez bezalako egunak.

Bein ibilaldi aietako batean erioa agertu zitzaion eta unela mintzatzen ari:

—Eup, zer diok, ikaskin? Zagutzen alnauk?  
Ikazkinak beldurturik:

—Non abila, erio? —erran zuen.

—Ire eske eldu nauk.

—Nere eske! Ikazkin gaizo mintzen-urte luze aietan bizi izaten utzi; ta orain zorioneko egun labur batzuk izan ditudaneko, nere eske eldu aiz?

—Etzataken erorrek neri erran, ni guziekin, naiz aberats naiz erromes naiz aundi naiz ttipiekin berdin nintzela? Orai ire aldi baita, nerekin etorri bear duk.

—Etxolan gau artan egin naken laguntzaren saritzat, otoi!, indak Aita Gure ta Agur Maria errateko astia.

—Ori izanen duk, bainon gero erne egon adi.

Ikazkinak Aita gurea bai bainon Agur Maria egunetan ere etzuen erran.

Erioak etzakien zer egin ta denboraren buruan oianeko aritzbesanga batetik dilindaka alegia urkaturik bere burua eman zuen. Ikazkinak erioa ilik ikusita poz pozik Agur Maria ere erran zuen. Erioak orduan burua goratuz ta.

—Nerea aiz —erranik, berekin eraman zuen.

(*Elbetea (Baztan)-en jaso Gurutz Goyenetxe gandik.*)

Antzerakoa da Grimm anaiak *Der Gevatter Tod* izenez emana. Bere berri ematen da Azkue'ren *Euskalerrriaren Yakin-tza'n*, II tomoa, 170 garren orrialdean.



## YAKILEAK

Senar-emazte eli bat etzitüzün akort eta senarrak emaztea yotea zizün eta aizuak entzuten zititzün erhotsak. Jujiaren aitzinëala emaztiak deitu zizün gizona, aizua jakile hartuik. Harat heltüonduan jakiliari galtatü ziozün jujeak ikusi zünez joiten. Jakilëak erran ziozun:

—Ez, bena erhotsak entzuten ziitiila.

Jugëak arrapostu eman ziozun utzül ledila, etzela jakile hun.

Gibelialakuun emaztekiak uzker haaaandi bat egin zizün.

Jugëak erran ziozün:

—Errazu, emaztëa: holakorik eztüzü heben egiten.

—Zer, jauna?

—Uzker bat egin duzu.

—Ikhusi duzia?

—Ez, bena bai entzun.

—Zu ere etzira hun hakile izaiteko.

*(Graciosa Larramendi'ri entzuna. Garindañe (Zibero)-ko alaba.)*

## JESUS, MARIA TA JOSE!

Frantzia-aldeko Bankan gau batez mutillak sukaldean asantsak goarteman zitue ta zer gertatzen zen ikustera fanze. Gan etxeko andre zarra plantxa goititurik aurkitu zue. Zer äi zen galde egin zako eta andre zarrak mutillari, sorgin-bilgiora fan gogo zuela erranez, arekin fan nai zuen galde ein zako. Baietz. Mutilla, bere soinean arturik, etxaminen goiti atra zue.

Gandik Akelarrera eraman zue. Gan bertze sorgin anitzen artean bere andrei Maria zegola ikusi zue. Gonen ikustean mutikoak arriturik:

—Jesus, Maria ta Jose —erran zue—. Zu ere gen, Maria!!

Izen sandu gebek entzutean sorgin guziak lekutu zire. Mutikoak bizpirur egunez etzue bere etxea billatu al izan.

*(Maximino Iziz'ek errana, Iriberriko (Amezkoa).*

## IKAZKINAK YAUREGIAN EDO ORAINTSUKO ADAN TA EBA

Senar-emazte, seinik bagako, ikazgintzan bizia nekez aurrera eroen biri, egunik etxaken igaroten pexada bagarik. Irutarik bitan yazoten eztana, senarra zan etxe tutu atako izkaldi geienen iturria. Ezeutsan, baina, emazteari arpegi artzen (ezin eukean-ta) alperkeriagaitik (maratz-maratza zan) ez ordikeriagaitik (urak lenago bere ezeban inor orditzen) ez min-askatuegia zalako. Misinoe batzuetan buruan sartu ekion senarrari emakume batek, lenengoak, ekarri euskuzala gure atsakabe ta neke, gosse-egarri, eri ta eriotza, munduko gora-bêra mingarri guztiak. Eba zazpi bidar aitatu bagako egun gitxi izaten ziran etxe atan.

—Aingeru ezpataria neu izan banintzaon, bera ilgo ñonan nik eta kitu. Emakumea izan bear yonan gauza ona izateko!

Geienean isilik egoten ekion ikazkiñari emaztea. Batzuetan, orregaitino, ezeban atzerako bagarik izten.

—Eba, zorioneko eta txarreko Eba ori, eure ama be(re) bazoan. Bera bakarrik egon balitzok, etxoan ak obenik egingo; baina an yeukan kaltzandi, an yeukan Adan, eta yakiña! Bata ikusguratxoa, bestea yatun, salobre, beteeziña; ta bien artean sagarra, azal ta guzti klak barrura.

Onelagoxe izkaldi baten bitartean, batak esan ta besteak erantzun, Eba ta Adan ao-minean erabilezala, errege eizari bat ikaztoiondoan agertu ekioen.

Euren zurrumurru ta ezta-bada zolia zegaitikoa zan yakieran.

—Gizagaixo andiok, erdu neure yauregira bizi izatera —esan eutsen.

Lotsa gorritan, pozarren bazan bere, tipitapa, yoazen biak erregeren ondorik. Yauregian sartu ziranekoxe, orratzetik arako soineko ederrak yantzi eraginda, amesetakoak zirudien-logela, langela ta bazkalgelak aukeran ipini eutsezan. Erregek, orregaitino, euren soineko ketsu urtetsuak arduraz gorde eragin ebazan. Yauregiari egokion baratze muga bagakoan une zabal ikusgarri, zuraritzez loraz ta arnariondoz ederto ornidua, euren atsegi nerako izentau eutsen.

Beste autugai askoren artean auxe bein baino sarriago esan eutsan senarrak emazteari:

—Mari, amaika bidar txutxu eragin daunak, Eba zala ta etzala; baina neure ekinari eskerrak gaigonaz gu zer nai ta axe daukagula. Bestela, zer? oraintxe be ni txondorrari ta i lapiko okela bagakoari puzka.

Erregek iru-lau bat ikustaldi egin eutsezan; ta —gauzeak ekarrena— gero baino gero pozez beteago ta sinistu ezinago aurkitzen ebazan bere magalpekoak. Bein,

aurretiaz atean ots eginda, yauregiko otsein bat sartu ekioen, besapean zur ederrezko kutxatxo bat ekarrela.

—Errege nire ugazabak bere izenean kutxatxo eder au euki dagizuela dirautsue; baina bein bere ez zabal-tzekotan. Bestela zoriona galduko dozuela.

Oinaultki baten ganean ekarkizuna itzita, burua ma-kurka iru bidar erabillaz alde egin eutsen otseinak.

Emazteari lenen otu ekion-gogamena: «Zer etedau-ko?» Izan zan. Burueratxo au, luzaro ausnartuta, sena-rrari azaldu eutsanean:

—Begira gero, Mari —erantzun eutsan senarrak—, ikuturik bere ezegion gauza orri egin.

Lenengo eguna zelanbait gautu ekioen kutxako barri yakin bagarik. Urrengo eguna zabaldu zaneko, orraztu baino bere lenago, kutxa-ondora aurreratu zan emaztea ta esku biakaz baretxe goratuta:

—Peru —esan eutsan ezkontideari —arin-arina dok. Zer eteddaukat?

—Mari, gero, begira gero: osterantzean aaa...

—Peru, argia sartzeko besteen zabaldu doat.

—Ezetz.

—Inok etxok yakingo.

—Urreratu banakin, urreratuuuu...

Goizerdian, gosari ederrari betiko bidea emanda ge-ro, baratzean, batean ara bestean ona, astiro ta galanto, bene-benetako andikien eran ebilzala, emazteak, barrero bere, kutxea aitatu eutsan. Esanen esanaz zuritu eban Peru: batak geri-geri zabalduko eban, argi-aritxu bat sar-tzeko doi-doi; besteak barrura ondo begiratu-artean.

—Peru, oratu euk.

—Nik ezin ddonat, Mari; naiago ñeuken egur-txondor bat metatu, lenagoko antzera. Dardar ñagon nazan au.

—Epel, ikarorr, gizon bere ezaz i. Neuk zabalduko ddoat zirika zirika, argitarago eroanda.

Marik kutxeari estalkia goratu eutsaneko txirrrrrrrst eginda sagutxo zêzê buztan-luze bat urten, zazkardian sartu ta ostendu ddaken. An eragioen senar-emazteak larri, pistitxoa atxitu nairik. Errege goian euken zelatean. Alango baten, erregek eju egin eutsenean, berari begira zurbil ta margul gelditu ziran.

—Zer darabiltzue orren arduratsu?

—Jauna —erantzun eutsan geroagogarrenean eta motelik emazteak—, jauna: arazo bagakoak zetan edo atan astia eman bear dabe ta...

Errege leiotik barrura sartu zanean, Peruk aopean Mariari:

—Galduak gaitun —esan eutsan.

Lasterko eurakanatu ddaken errege. Lenengo lenengo egin ebana kutxea eskuan artu ta zabaltzea izan zan.

—Nun da barruko mutikoa? —itandu eutsen.

Peru isilik. Mari itz egin ezinik.

—Nun dozue nire sagutxo txanbelina?

—Jauna, nirea ezta errua. Neure emazte ikusgura, nunzebarri...

—Eba beti Eba —esan eutsan Erregek Mariari.

Peruri gero:

—Eta Adan beti Adan.

Errege geiagoko bagarik urtenda, berealantxe sartu zan aurreguneko ogipeko, sagua ekarri eban otseina.

—Errege nire ugazabak zeuen soineko zârrok ekar-  
teko esan daust.

Yantzizuez ta etorri zintzazen bidêtan barruna zoa-  
ze zeuen etxera.

Eta senar-emazte arek, marroiz marroiz yantzita,  
egur-txondorrai su emoten igaro ebezan euren il-arteko  
egunak.

(Merzedez N., Garay'ko alabak kontatua.)

## IRU ALPER

Umezurtz geratu ziran iru anai. Kabezaleroak (sic) erran zuten: «Langileenari etxea eman bear zaio». Langileena zein zen yakiteko, badoazi berak umezurtzen etxera ta bata etxe-ondoko turriandoan auzpez arkitu zuten.

—Zer ari aiz or? —galde in zakoten.

—Egarri naiz.

—Edan zak ura. Or duk urbil.

—Baina yaikitea ere lana da, ordea.

—Onentzat ezta beintzat etxea —erran zuten gizonak.

Gora igan ta bigarrena sutondoan arkitu zuten, bizkarrez sutara begira.

—Zer ari aiz or? —galde in zakoten.

—Belaunetan otz naiz, ezin berotu.

—Itzul adi, sua or duk eta.

—Baina itzultzea ere lana da, ordea.

—Onentzat ere ezta etxea izanen —erran zuten.



Irugarren anaia ogatzean zagon.

—Zer ari aiz emen?

—Ai au gosea! Ai au gosea!

—Zer duk, mutil?

—Gose naiz.

—Armario artan ezalduk ogia?

—Bai, bainan yaiki ta berriz etzateko lan egin bear.

Luzaz egin ziran kabezaleroak etxea norentzat izanen ote zen erabakitzen.

Lenbizikoarentzat izan zen etxea.

(*Arizkun'go (Baztan) Felipa Lastiri'k errana.*)

Grimm anaiak badute *Die drei Faulen* izeneko ipui bat. Errege baten iru seme ziran, zeintzueri il baiño lenxeago bere gelara dei egin zien eta bere ordeko iruretatik alperrena izendatuko zuela esan zien.

## IRU EGIA

Etxolatik yautsi zuzun behin artzain bat bere pus-  
kak harturik, bena matxarroa etxolan hantzirik utzi zi-  
zin, eta haren txerka gibelerat itzuli zuzun. Basa-yauna  
atzeman zizin etxolan.

—Norat heldu hiz? —galde egin zion Basayaunak.

—Matxarroaren txerka heldu nuk —erran zion ar-  
tzainak.

—Hiru egia erraiten badituk, ukhanen duk matxa-  
rroa.

Artzainak erran zakozun:

—Gau hunen ederra! Eguna bezen argi duk, erran  
dezake norbaitek. Ez, sekula.

—Horra egia bat —erran zuen orduan Basayaunak.

—Bigarrena. Belea herioa bezain beltz dela erraten  
baitute. Ez, sekula.

—Horra beste bat —erran zuen orduan Basayaunak.

—Hirugarrena. Nik egun yakin ukhan banu hi gaur hemen hintzala, eznindian ni huna yinen.

—A hori duk egia. To matxarroa.

Eta gero, bere matxarroa eskuan zuela, etxera yoan zen artzaina.

(*Santa-Grazin (Zibero) entzuna Mayi Anpo Ezterenzubikoari*).

*Iru egia* izenez, badu Azkue'k beste ipui bat ere, Garay'n jaso eta *Azeria ta baxeraketaria*'ren antzerakoa dana. Biak *Euskalerraren Yakintza'n* II gn. tomoan, 382 eta 414 orrialdeetan arkitu genezazke.

Era onetako ipuiak, "Iru egia"-renak ugari dira Euskalerrian.

## IRU BURUBIDE

Gizon eukitsu, burutsu, urtetsu, batek iltamuan e-goala, seme zarrenari iru burubide onek emon eutsazan. Lenengoa: etxe aurrean ezegik inoiz ondoskopik (Zugatz-landararik) sartu. Bigarrena: sasikorik, uriko umerik, ezegik inoiz semetzat artu. Irugarrena: emazteari, inoiz ezkondu baadi, ezegiok euk barruan daukan guzti-guztia esan.

Aita zur ta zarra il zaneko ezkondu zan bere semea ta egunik geienetan eizara yoan oi zan. Aitaren iru burubideak sarri askotan etorten ddakazan gomutara ta, eragotziriko gauzak gozoago dirudielako edo, iru erabagi artu ebazan (guztiak batera ez orregaitino), ain zuzen bere, iru burubide aren aurkakoak.

Emazteari, bein maian egoazala.

—Zer deritxan nire asmo oni? —itandu eutsan—. Aitak etxe-aurrean ondoskopik inoiz ez sartzeko burubidea emonarren, zugatz eder batek etxeaurrea yantziko leukeala ezton uste?

—Zarren asmoak! Bai, ler azitxo batek or ederto emongo leuke.

Arik egun batzuetara ler-landara bat an euken etxe-aurrean.

Lau-bost urtetan ezkontuta egon-arren, seme-alabarik emazteak ezekartsanezkero, uriko bat semetzat artzea gogoak emon eutsan. Bainan ezetan asi-orduko, emazteari orretarako eritxia eskatu eutsan, aitaren burubidea aitatuta gero.

—Zarren asmoak! —esan eban orduan bere emazteak—. Soñeko guztiak eztira norberak eginak izaten; au gora-bera norberak eginikoai langoxe maitetasuna izaten dake yostunen batek egindakoai. Norberak eztaukanean, aintzat artu leike bai uriko ume bat.

Egun asko igaro baino lenago an euken etxean mutil bat semetzat artuta. Aspaldion atarira astean bein Txomin Gorri eritxon eskeko bat, Jaungoikoaren deiko bat, etorten daken. Lege andia artu eutsan etxeko jaunak.

Beragaz eizalagun erabilten eban eta erdi morroi erdi-etxeko lez an euken eurakaz Txomin. Ugazaba beronegaz pozik baegoan, berau ugazabaz zein eztitan bizi zan edozeini otu lekio.

Aitak ilaurrean emoniko irugarren burubidea sarri erabilen semeak gogotan. Ezeutsan inoiz emazteari azaldu nai izan, bere gurasoaren gomutea gorrotogarri izan etzekion. Bein eizara yoazala.

—Txomin —esan eutsan, morroi zarrari—: bada-kik datorren zapatuan gurean ze egun dan. Geure semetzakoa ezkontzen ddakuk. Aren emazteak etxok bizi-laguntzat eskeko izandako bat euki nai izango. Ta, arren bai arren!, bi edo iru illebetetan, gauzak argituar-te, beste nonbait i bizi izatea eskatzen dauat. Auxe be-

ne benetan ta adiskide-modura igandik gura ñeukek. Birtartean bizi izateko bear doan dirua neuk emongo dauat. Beste mesede bat: bizarrari azten itxiok eta beste izen bategaz bizi adi, iñok nor aizan ez ezagutzeko eran. Eta nik bein edo bein Txomin Gorri zerbaitetarako ots egin dagiodanean agertu adi. Jaungoikoarren ezeik gero azken esaniko au aztu.

Ezebala aztuko eskeiñita esker andiakaz ta

—Jaungoikoak nire ongille andia zoritsu egin dagiala —esan, ta eskuan mun eginaz aldendu zan Txomin Gorri beragandik.

Eguerdi-inguruan etxeko jauna bakarrik eldu zanean:

—Non dozu bada Txomin? —emazteak itandu eutsanean,

—Emazte —erantzun eutsan senarrak—, iretzat ezi-neuki dagikenat nik isileko gauzarik. Barrua azazkateko bere esan bear daunat. Goizean goiz, Txomin ta biok eizara goazala, utsagaitik, inoiz ez gaur, asarratu egin gozana ta nik neure amurrua ezin eukita, bertan ilda itxi ddonat.

—Ene! Zer entzu dot nik!

—Emazte: bioi ddoakunagaitik bere ezeikion gaur yazo dan zorigaitz onen barri inori emon.

—Ez nik.

Urrengo zapatuan semetzakoaren ezteguna adiskide, aide ta auzoko guztiak batu ta txalik ederrena ilda, zautandi bat egin eben. Bazkalbitartean etxeko jaunak berariz asarralditxo bat izan eban emazteagaz eta azur bat arpegira yaurtigi eutsan. Emazteak orduan amurruzko negar-artean, —Gizonak —esan eutsen bazkaltiar guztiai—, eztakizue au nor dan? Eztakizue onek lengo

egunean zer egin daben? Txomin Gorri gizagaixoa asarre baten ondoren beronen esku zitalez il dau.

Au entzueran maikide guztiak yagi ta etxetik kanpora-bidea artu eben. Bertako nagosiak gau atan kartzelan (baitegian) lo egin eban. Ta egun batzuren buruan urkatua izateko epaia emon eban epilariak. Urkamenditzat etxe-aurreko ler ederraren besanga bat begiz jo eben. Arazorik andiena urkatzaillea aurkitzea izan eban legezizonak. Inok ezeban arazo ikaragarri ori leporatu nai. Auzoko ta urrungo, guztiak maite eben epaitua. Ontzat, biotz andikotzat, esku-zabaltzat euken ezagutzen ebenak. Azkanen buruan batek bere eskua orretarako eskini eban, gitxien uste izateko zanak, ezkon-barriak, nagosiaren semetzakoak. Orretarako amazortzi milla erreal saritzat izatekotan.

Urkamendira eroela, bere etxeaurrera eldu zanan,ler adartsuaren azpi-azpian epailariari, itz egiteko eskubidea, eskatu eutsan urkatzekoak.

—Orain nik Txomin Gorri geure artera banekar, yara egingo nendudezue?

Barre egin eben askok. Epailariak baietz erantzun eutsan.

Orduan bere eskuetako bilurrak (burdin-katetxoak) epailariaren baimenez askatu ta ler-burura igonaz,

—Txomin Gorri —dei egin eban berak.

Barre egin eben askok.

—Txomin Gorri —bigarreanean.

Barre andiagoak eta ugariago. Irugarrenean len baino gogorrago deia eginda, urruntxotik.

—Banator —norbaitek erantzun eban.

Inor ezegoan orduan barrerik egiteko taiuan. Ikaraz dardar ta agoa zabalik geienak. Arpegia bizar urdinez ta

burua arratiar-kapeleaz estaldurik agertu zan Txomin Gorri, besteren bat zirudiala. Bera ikusita, beste mundutik etorriren bat zala uste eben geienak. Ikara gorritan igesi asita bere asko egozan euren artean.

—E! geldi emen guztiok —esan eban etxeko jaunak ler-adarretatik yatsita —Entzun nire aitak il-aurretxoan emon eustazan iru burubideak. Lenengoa: «etxe-aurrean ezeik inoiz ondoskopik sartu». Eta guk urkamendi izateko auxe sartu genduan. Bigarrena: «sasikorik, uriko umerik, ezeik inoiz semetzat artu». Eta guk nire urkatzailenai au semetzat artu genduan. Irugarrena: «emazteari, inoiz ezkondu baadi, ezeiok euk barruan daukan guzti-guztia esan». Eta nik neurearen kirmentasuna noragiñokoa dan yakiteko Txomin Gorriren eriotza guzurrezkoxtoa asmau neban. Gizonak; nire Aita bene-bentan izan zan etxe onetako Buru (nagosi zalako) ta Burua, zurra ta sakona eukan-da.

(Aramayoko Olaeta auzoko N. Ajuria'k kontatua.)

Jena deritxon urian (Alemanian) *Nordische Volksmärchen* (Iparraldeko ipuinak) izendun liburu bat argitaratu eben 1919-garren urtean. Ango ipuin batek izen bardina dauko: *Die drei guten Ratschläge* (Iru burubide onak). Aitak bere iltamuan semeari emondakoak dira, baina gure iru onen antzik bere ez-tauke.



## JUAN MIGEL

Iru mutil lapur, etxetik alde eginda, mendian ibiltzen ziran lapurretean: beiai esnea errapetik edan, txekorrak il ta jan... ta ola. Berak arrapatzera eizari ta eizari etziran asko joan ziran. Il ere bi egin zituzten. Juan Migel ezin. Berak esan zien:

—Ni enazue il al izango konfesatu gabe.

Apaiza ekarri zioten.

Konfesatu ta gero, inguruan arrituxe ziran batzuk galde egin zioten nola zan besteak bai ta bera konfesatu gabe il al izatea. Eta berak erantzun zuen:

—Aste guztierako ostiraletan baru egin izan dedalako.

Amezketan Felipe Saralegi zeritzaion gizon, 90 urte zituela il zanak (Larramendi izena duan etxekoa zan bera) esaten omenzuan berak Joan Migel hura ezagutu zuela.

*(Amezketako Marian Ziriako'ri entzuna.)*

## KITO

Norbait, ausartua ta lotsa andi gabea, aitortzera yoan zan bein.

—Yauna —esan zion apaizari, belaunikatu ta berea-la—, lenengo aginduan bekatu bat edo bestetxo baditut, bigarrenen ez ta kito. Irugarrenean baten batzuk bai, laugarrenean bat ere ez ta kito. Bosgarrenean bai, seigarrenean ez ta kito. Zazpigarrenean bai, zortzigarrenean ez ta kito. Bederatzigarrenean bai, amargarrenean ez ta kito.

—Adi zak —esan zion konfesoreak—. Azken konfesioan apaizak asolbizioa eman al ikan iri?

—Bai, yauna.

—Nik orain ez, ta kito.

*(Maria Izpizua, Gabika'ko alabak, Gipuzkoako artzai bategandik ikasia.)*

## KUKUAK NORI JO

Gizon bi Saiturriko mendian gora Araba-aldera yozala, kukuak yo eutsen.

Biak poz-pozik egozan, bata baino beste pozago. Batak zinoan:

—Neuri jo ddaustak.

Besteak:

—Ez, neuri baiño.

Ez bai atatik urtetearren urren zan abogaurenera yoatea erabaki eben. Txeraz artu zitun lege gizonak. Yaso zanaren barri emon eutsenean.

—Nik —esan eutsen onek—, aurretiaz artu bear izaten dot abogausaria ta gero eritxia emon. Ogerleko bina da nire arazoak balio dabena. Batak eta besteak diru ori emon eutsenean.

—Nori yo dautso ba kukuak?

Itandu eutsen leniztar biak.

—Iri ez; iri be ez, neuri baiño —izan zan lege gizonaren eritxia.

*(Leniz'ko Gellano auzoko Juan Urrutia'ri entzuna.)*

## IRU ESTUDIANTE

Gure ipuinetako estudianteak oker, alper, amarrutsu, buru zorrozdunak izan oi dira guztiak. Onelako-  
xeak ziran bein Bilbon alkar bat egin ebenak bere. Euk-  
kezan diru apurrak irazi, ikasteari itxi, lanerako nagi ta  
nakar, goian zerua ta bean lurra eukela.

—Zerbait egin bear dogu estualdi onetatik urteteko  
—zinoen.

Euretatik urtenenak.

—Ik —esan eutsan batari—, nondik edo andik ar-  
daoa ekarri egik.

Besteari:

—Ik aragia, nai gelia dala, okelea dala, txarrikia da-  
la, aragia izan daiteala beintzat. Nik ogia ekarriko doat.

Bakoitza bere aldetik gauzon billa asi ziran. Lenen-  
goak zaragi bat, norbaitgandik zuzenduta, urez beterik  
ebala, ardantegi batera bidea artu eban. Txiriboginari  
(tabernariari) urlia aberatsaren morroia zala esan eutsan  
ta eukan ardaua etzala ainbestekoa ta aldatzea gura eba-  
la bere ugazabak.

—Aberatsari edozein mesede egin bear ddako ta ekarrik ona zaragi ori ta artuik orren ordez berorren esterriako bat.

Estudianteak bere zaragia itxi ta bestea besapean ebala etxera-bidea artu eban.

Bigarrena azokara yoan zan aragi billa. Aari bat urruntxotik ikusi ta pozik urreratu zan beragana. Laster egin eban egiunea (tratu) bere yaubeagaz.

—Erdu neugaz, gizon, eliza orretaraxe. Ortxe dago nire ugazaba ta laster dozu eskuan dirua. Egon ementxe —esan eutsan elizperatu ziranean—, neuk abadea bertora ekarri arte.

Urrunengo konfesanariora (aitortegira) yoan zan.

—Jauna: an ate-ondoan agiri dan gizona konpese-tara dator. Dirua ta dirua noizean bein aituko dautso. Gizagaixoa gitxirena (ergela) da.

—Etorteko esan egiok.

—Yoateko dino —zirautsan gero estudianteak aari-yaubeari—. Antxe, zokondo atakoxe konpesanarioan dago.

Saltzaillea urreratu ta zutun-zutunik eta isil-isilik egoan.

—Belaunikatu adi —esan eutsan abadeak.

—Diru billa nator, jauna.

—Ze diru ta diru-ondo?

—Aariaren dirua.

—Esaik gizagaixo orrek ni pekataria, dirua geroko itxita.

—Dirua bear dodala, Elizetan bere lapurretak?

Abadea musturtu ddakon ta zokondoan eukan maki-lliaz (errena zan bera ta pipermina lakoxe sutsua) erdi alarauka elizatik atara eban.

Orduko iges eginda egoan eroslea aari ta guzti. Batek badaki nondik nora joan zan.

Irugarrena azoka-inguruko okintza baten sartu zan. Ogi eder bi erosita.

—Erdu dirua artzera neure ugazabaren etxera —esan eutsan yaubeari. Andik urrtxo bizi zan barberu batenera yoan ziran biak:

—Zagoz ementxe, goian naizan artean.

Ogi-yaubea ateetan itzi ta estudiantea gora. Atean ots eginda,

—Nor da? —esan eutsen.

—Neu. Atarian gizon bat dago labatibea nai leukea-la-ta.

—Egoteko apur baten. Gertu dagonean dei egingo ddakola esaiok.

Yatsi zan estudiantea.

—Eurak dei egingo dautsuela ta egoteko.

Egon ta egon, luzaro eritxon ogidunari ta alako baten kisketari (aldabeari) ots andi batzuk eraginda.

—Gertu gagoz? —itandu eutsen goikoai.

—Olako estualdia daukagu? Erdu.

Eldu zaneke,

—Kaltzaz erantzizuz —esan eutsan barberuaren semeak.

—Ze kaltza ta kaltzondo? dirua bear doat nik.

Aita-semen artean oratuta, kaltzak beratuaz emon eutsen zer ori ta saritzat peseta bi katanarrutik atara eraginda, beera bidean bidaldu eben ogiduna.

Iru estudianteak, alkar bat eginda, okotzeragiño bete arteko yan-edana egin eben illuntze atan.

*(Gabika'ko Maria, Izpizua'ri yasoa.)*

## LAKUNTZARREN PERTZA

Burundarrak absoluzio-egunean Aralar-mendira, San Migelen elizara, yoaten dira, Elizako aldia eginta, erri bakoitzak leku bat ba-du bazkaria gertatzeko ta ala erri batekoak emen, bestekoak or: alaxe banatzen dira. Lakuntzarrak armal-ertz andi bat tripotaz betea, egur-gaiñean. Egurrak sutan zirala, bat gustatu zenen, pertza armal-burutik erori ta amilka armala bera ta mendia bera, Sakan-aldera yauzika jexten asi zen.

Au ikusi zutenean Lakuntzarrak erran zuten:

—Pertzak pertza eginen badu ere, tripotari eutxi.

Ordutik Naparroa guzian ardura andiz galdetzen da:

—Zer egin zuen Lakuntzarren pertzak?

*(Utzama'ko Justo Albizu'ri jasoa.)*

## KARDULATZA SALATARI

Euskaldunen artean meatz-meatz (gutziz gitxitan) yazo izaten dana, gizon batek zegaiti eztakigula ta odol otzean beste bat il eban. Lenagoti sematuta eieukan,

—Neuk ilgo aut i —esanda.

Bein barruti baten alkar aurkituta,

—Ireak egin ddok, il bear aut —esan eieutsan.

—Ni?

—Bai, ementxe ta oraintxe.

Ilteko eukala kardulatz bat erabillen aizeak batera ta bestera.

Iltekoak (il bear ebanak) orduan bedarrari.

—Kardulatz —esan eutsan—, euk agertuko dok, noizbait, nire eraille au.

—Bai! Eztok lagun txarra salataritzat artu gane-ratu eutsan erailleak.

Bost urte anditan inok ezeban yakin eraillea nor zan. Onako au zala, orrako ori zala, arako a etezalakoa: gar-bi inok ezeban ezer yakin.



Arik bigarren urtean eraille ori emazteagaz ogean egoala, leioa zabalik euken ta kardulatz bat aizeak ziboka, batean argitu, bestean itsutu (agertu ta ostendu) erabillega ikusirik, barre egin eban senarrak.

Emazteak.

—Zer dala ta ago goizeon orren pozkor? —itandu utsan.

—Esango neuskin, baia andrak uruna eraltekoe baea langoxeak zaree ta oba donat isillik egon.

Emazteak ostera ta ostera:

—Zerren egiten dok barre, kardulatz aizeak begietara dakarren bakoitzean? Esaidak bein.

—Euk inori inoiz agertu ezpadagion bai. Esan bada gion barriz, apurtuko enduket eta oba isillik egotea.

—Etxautsat nik inori bere esango. Bai! Ona nok neu txutxuputxu bazterretan ibilteko!

—Aurra bada! Etxezarretako arako Anton ezta-kin, orain bost urte il ebena? Neuk il noñan.

—Jesus! —esanda zurbil zurbil geratu zan emaztea.

Gizonak bein alkandora —eskuturrean arizko ale bat (botoe bat) bear eban eta andreari yosteko esan utsan. Andreak, aletxorik (ojalerik) egiteko astirik ezeukala ta

—Kardulatz orretxen zati batez lotuik —esan utsan.

Olantxe eskuturra lotuta badoa gizona sueteko mazkelu batera arpegia ta eskuak ikuztera (garbitutera) ta arpegia kardu-arantzeaz urratu eban. Asarrekorra ta sutua zana lendik bere ezagun eban gizon ak. Orduan emazteari, aletxoa yosi ezeutsalako, errua egotzita (bo-

tata) sutu zan ta zaplada zoliren batzuk bere emon eutsazan. Emazteak deadarrez:

—Onan yo banagik, nik esan egingo ddoat Anton Etxezarreta euk il euala. Zemai au etse-ondotik bidez yoan batek (alkatearen alabea eizan bera) entzun eban. Bere etsera eldu zanean, arnasa artzeko bere asti bagarik, aitari.

—Aita —esan eutsan—, auxe ta auxe entzun dot.

—E! Egia etedon gero gauza ori?

—Baietz, aita. Goreko gizonak il eban Etxezarreta gaixoa. Emazteak deadarrez agertu dau.

—Ondo ulertu don gero?

—Bai, aita.

Alkateak gero udaletsera andra orri ots egin ta zeatz-zeatz ekian guztia eraso eutsan. Goreko gizon ori ama-bi urte osotan preso (baituta) euki eben.

Librau (jara egin) ebenean, etxeratuta, egunean makilaldi bi emoten eutsazan emazteari, arik eta beronen eskabidez baitegira eroan ebenarte. Gore gaizto gaizkiñari baitegiko gau ta egun luze amai bagako aretan, gomuta izan eteddakon inoiz Etxezarretak astalarrari il-orduan esan eutsana?

(*Lemona'ko Celestina Menika'ri yaso.*)

Kirikiñok *Abarrak* deritxon liburutxoan *Itozurak zinaldari* izendun ipuin, onen antzeko bat dakar.

## LAMIA GAZTANBERA-ZALEA

Ulzaman, Arraitz deitzen den errian, armalzulo andi bat da. Zulo ortan lamiak bizi omen ziren. Sunbillenea deitzen den etxeko artzaia gauero udaberrian zulo aren ailtzinetik igarotzen zen, abatz beste gaztanbera buruan zuela. Eta lamiak ateratzen zaizkion eta pixko bat ematen zien eta orrekin pozik gelditzen ziren.

Eta aldi batez erran zien kaiku bete gaztanbera eka-  
rriko ziela, lami guziak yan zezaten. Eta erran ta egin,  
biamonean kaiku bete an utzirik, lasterka bere etxe-  
ra itzuli zen. Lamiak pozez beterik asi ziren yaten eta  
bereala arkitu zuten gainean gaztanbera pixko (b)at zue-  
la eta azpian altxirra. Engañatu zituela ikusi zutenean,  
gibeletik yarraiki zioten eta Arraitzen sartzean ia ia arra-  
patzera zidoiaenean gaezko amabiak yo zuten eta erran  
zioten:

—Bearrik yo dik ordua; bertzenaz galdua intzen.

*(Alkotz (Utzama)-ko Justo Albizu'ri entzuna.)*

## LAMINARANGO TA ARLABANGO LAMIEN AUTUTXO BI

Bermeotik Mundakara bidean aldape andidun aran bat, zelai bat, dago. Lamiaran dau izena. Bein Lamiararen barruna gizon bat bidez yoean.

Itsasondoko Errosape deritxon zubi-ondoko latsean (errekan) bere Laminak bizi ziran; eta aretxen arteko batek gizon bidezti a ikusita, uuka eta garraisika berbaxo onek zuzendu eutsazan goialdeko lagun bateri:

—A Lamiarangoa!

—Zer gura dona, Errosapekoa?

—Or doean orreri bota eiona lakirioa.

—Zelan botako ddotsanat lakirioa? Gabonariz egi-na ddaroeana soñnekoa.

Onetxen antz-antzekoa da Murelagan beste lamina bik izan eben autua:

—O Karatxekoa!

—Zer nai dona, Arlabangoa?

—Or bidean datorren gizon orri ipini eiona lakioa.

Berorren emazteak ipinita ddaukana orrek gabonaria ta apioa.



Oarra: Lenengo autua neure amaren ezpanetatikoa da, bigarrena Murelagako alaba Mari Martina Maruri'ri entzuna. Sineskeriak izendun liburuan (*Euskalerraren Yakintza*, I-nengo tomoan) ikusi daiteke or aitaturiko gabonaria Laminentzat zer zan.

## LANDABERROKO APALTIARRA

Landaberro deritzaion etxalde batera, Amaiurko uritxon, lamia gauero etortzen zen eta sutondoan yarri, yauntziak goraxko zituela. Beroaldi bat artu-ondoan etxeko andreari zartain-zukua eskatzen zion. Zartain erdi oriotan ogi-papurrak zeatuz egiten zen zuku au. Etxeko andreak, gastuak iziturik, senarrari gertatzen zitzaiona yakinarazi zion; eta unek inardetsi zion andreari:

—Gaur ni geldituko naun.

Andrearen zaiak yauntzi, kulluan lioa ezarri ta ardatza eskuan zuela asi zen iruiten. Lamia torri zen ta erran zion.

—Nor aiz i?

—Ni nor nere buru —inardetsi zion iruleak.

Atzo piripin piripin, gaur aldiz purdukun purdukun diarabilna ardatz ori.

Iruleak zartainean orioa gertatu zuen ta irakiten asi zenean aurpegira yaurtiki zion lamiari. Lamia aurpegia errerik, marrumaka asi zen. Lagunak etorri zitzaizkon eta erran:

—Nork zer egin daun?

—Nork nere buru.

—Ik ere buruari egin badion, nori zer nai dion?

—erranez oro ban ziren. Andik aitzina etzan Lamia hura Landaberrora geiago itzuli.

*(Bastan'en ikasia, Gurutz Goyenetxe jaunaren aotik, Elbetea' ko semea.)*

## MARTIN ABADE

Tolosa-aldean gizon onek Mateo Txistu dau izena, Mendaron don Klemente. Nor zan bera? Nongoa semez? Arrasate inguruan onenbeste zeetasun eztakie. Elizgizona zala dinoe ta Larrino deritxon baserritxoan parroku egoala. Ikaste andietako gizona zala bere zabal da inguru guzti aretan. Lurreko ikastetxeetakoai gitxi eretxita edo, deabruen artean bera ta beste lagun bik aldikada baten ikaste geiago egiten zerautsen.

Baldintasun bat ipini eutseen maisu onek; iruren arteko batek antxe euren artean betiko gelditu bearko ebal. Mutilok baietz, aintzat artu ta gogoz ekin eutsen arlo orretan. Azken eguna eldu zanean, larri egozan mutilok. Martinek esan eutsen:

—Zuek aurrea artu niri, neu konponduko naz Txerrenegaz.

Ikaskizuna amaitu zanean Txerrenek.

—Nor da niretzakoa? —itandu eban.



Martinek

—Oratu neure atzekoari —erantzun eutsan.

Lagun biak urtenda gero. Martin euren atzetik ba-  
joian ta deabruak bere atzean zerbait ikusita, ari oratu  
eutsan norbait zalakoan, ikasleren bat zala uste ebala.  
Martinen gerizea zan bere atzekoa. Deabruak oratu ta  
bere bizi guztirako geriza bagarik gelditu zan Martin.

Larrinon egoala bere giltzarik (Otseinak) bein

—Jauna, berorrek eztauko gerizarik —esan eutsan.

Martinek txarzat artu ta belarrondoko andi bat emon  
eutsan.

Deabruaren eskolatik geriza bagarik urtendakoan,  
Txerrenek asarraturik.

—Ederra sartu dostak —esan eutsan—; baina eu-  
rea artu бага ezaiz geldituko. Zaldizko talde bat ekarriko  
dostat nik iri, lur guztiak galduko dituana.

Baita nik barriz —erantzun eutsan Martinek—, oi-  
nezko-taldea (infanteria), agertuko joat ire kabaleria ori  
galtzekoa.

Arria yausi zan odeietatik (au zan Txerrenen zaldiz-  
ko taldea) Martin abadek konjurua eginda areka batera  
yaurtigi eban arri-erauntsi osoa.

Martin Larrinon egunaren orduak zelan emon ya-  
kin ez ta zerbait egitearren edo, eizarako zaletasun andia  
artu eban. Bein mezea emoten egoala, sagaraldira (kon-  
tsagrazinora) eldu zanean, txakurrak intzirika erbi-atze-  
tik ebilzala asmauta, egoana egoan lekuan itxirik txaku-  
rren atzetik erbiari yarraika asi zan. Arrezkero or dabil  
gelditu bagarik. Gau batzuetan bere moduko argitasun

bat ikusten dogu odaigainean eta aize-txistua lakoxea entzun be bai. Martin Abadearen txistua ta bere txakur-  
rren zaunkak izaten dira.

(Mondragoian entzuna.)

(Ikusi *Atarrabio, Euskalerrriaren Yakintza'n*, II-gn. tomoan 69 garren orrialdean, eta Vinson'en *Folklore du Pays Basque*, 6 garren orrialdea.) Alemanian eta beste toki batzuetan zabaldua da ipui au. *Handwörterbuch des deutschen Aberglaubens* (Alemaniako siniskeren esku iztegia), II-garren tomoa, 1675-garren orrialdean irakurtzen dira Banadietrich, Dyterbjernat eta orrelako izenak, kastiguz kondenatuak aizez eizan ibiltera eternidade guztian.

Gai oni buruz, *Eiztari-beltza* izenez, Caro Baroja'k ematen ditu berri sakonak bere *Algunos mitos españoles y otros ensayos* liburuan (bigarren argitalpena) Editora Nacional, Madrid, 1944. Ikusi 73/83 orrialdeak. Liburu au Euskalerrriko siniskeri buruz da geiena; Euskalerrrikoak beste leku batzuetakoekin konparatuz. Oso ezaugarria gure kultura zaarraren iturburuak obeto ezagutzeko. (*Edizio au gertatu duanaren oarra*).

## LEGOIA TA OLAGIZONAK

Basamortu baten legoi eme bat bizi zan bere seme-txoagaz. Gizonen batzuk senarra il otselako edo

—Gizonen bildur izan adi —esaten otsan beintzat eta askotan semeari—, indartsua aizala ta ezadi arrotu... gizonak gogorrak dituk... gizonen bildur izan adi.

Legoikumea andi ta indartsu egin zanean, basamortu-tik urtenda, gizonak aurkitu nairik batera ta bestera ebillen. Amaren isillik edo beintzat bere gogoaz bestera artu izan edoeban gazteak asmo au.

—Oraingotan gizonak ezagutu bear jituagu —zan buruak geien emoten eutsan ustea.

Alako baten uri txikitxo batera aldu zan. Legoia denda-aurrera eldu zanean, zapataginen erautsan dendariak, Aren ikarea pistitzarra ikusita! !

—Egun on —edo beste onelako zerbait esanda-koan—, gizona aiz? —itandu eutsan abereak.

—Ni, ez; zapataria ni.

Aurreratxoago uritxoan sartuta, abarketa balzdun gizon txiki bat ikusi eban basabereak. I taune bardiña ari bere:

—Gizona aiz?

—Ni... ni... ni... sankristaua.

Ikaraz bertan il etzanean!!!

Legoiak santu-barririk ezaban basamortuan ikasi ta ezekian *San ... Kristau* ori zelako santua zan.

Errekondoratuta ate zar batetik begiratuaz olagizon batzuk agertu jakozan, euren atorra andi lurreragiño-koak soinean zituela, laba sutsu ago aundiko baten ondoan.

—Aaaup!

Orroi au entzunda, olagizonak uleak azkor azkor zituela ate-aldera begiratu eben.

—Gizonak zare? —zirautsen abere barri-zaleak.

—Bai, Gizonak gaituk. Zer gura euke?

—Gizonak ezagutzera natorkizue bada.

—Itxaron puska bat, agoe auxe atararte.

Agoea atarau ebenean, leio-irristutik muturra sartuta egoan legoia ta olagizonak porrika andi batzukin suur-mintzetik oratu otsen ta kendu be bai. Legoia, surmintza aren eskuetan itxita, jara egin otsenean, arrapataka basamortuta bere amagana fan zan.

—Ama, zenbat atz dauke gizonak? —itandu otsan legoi gazteak zarrari.

—Amar atz ta beste amar beatz.

—Zuzen zengozan, ama, gizonen bildur itzateko ziraustanëan. Atz bigaz sùr mintza osorik kendu dostenean amarregaz eldu baloste ¿zer izango etezan, ama?

Gerostik legoia gizonaren igesi eidabil.

(*Leniz'ko aranean, Gellano auzoko Juan Uriarte'ri entzuna.*)

## MAISU GUZTIEN MAISUA

Jesukristo ta San Pedro eldu ziran-urtxo batean perratzaille bat bizi zan, maisu guztien maisua esaten ziotena. Berarengana biak elduta gaizki artu ziutan perratzaille arroak. Jesukristok mando bat perratzeko baimena eskatu zion. Sakeletik aizto bat aterata txokoetako zaiñak ebaki ziozkan zaldiari. Zaldia erori egin zan. Jesukristok orduan lau perra (gailla) sutan gorritu zituan ta perra gorituok zaldiari txokoetan ezarri ta agoz aize emanenez zaldia bizkor ta perraturik jaiki zan.

Alde egin zutenean, perratzailleak beste ainbeste egin nai zuen. Zaiñak ebaki, mandoa lurrera erori, perrak goritu, aize eman, Jesukristok bezela egin zuan ark ere; bainan alperrik.

Orduan perratzaillea Jesukristo ta San Pedroren atzetik ibiltan asi zan.

—Arren bai arren erruki zaite nitzaz.

Erruki izan zan bai ta gero bi beatz kopetan perratzailleari ezarrita, Jesukristok esan zion:

Maisu guztien Maisua badakizu orain zein dan.

*(Manuel Antonio Arruebarrena Ataun'goak kontatua.)*

## OTSOA ARTZAIN

Behin bazen otso bat Eskualherriko mendi baten gainean. Baginakike ere, beharrez, erraiteko xuxen, zoin, mendiren gainean. Otso harrek adin bat bazuen; yadanik zangoak uzkurtzen, tontotzen hasiak zituen eta hortzak ere ba muthisten, eta zonbeit yadanik eroriak. Alta bada denboran ihiztari zalhu eta erne izana zen. Zonbat ardi eta bildots etzituen larrutu eta yan? Bainan egia da zahartzeak eztuela deus onik, bereiziki ihiztariantzat. Han zagon beraz otso gaizoa, goseak arraildua, hezurak larruaren barnetik ageri; gogoetatua zagon, ez yakinez zer egin, bildotsño baten bederan hatzemaiteko. Bainan otsoa urrunetik ikhusi bezen laster ardiak eta bildotsak ihesi zoazin. Bertze alde artzainek eta zakhurrek etzuten uzten arthaldearenganat hurbiltzera. Zer egin bizitzeko?

Huna gogora zer heldu zitzaion. Egun batez arthalde guzia etzanik lo zagolarik, itzal azpi batean ardiak lo, artzaina lo, zakhurra lo, oro lo, emekiño hurbiltzen da otso hori; ebasten diozka artzainari bere soinekoak, oinetakoak eta bere makhila. Hantxet ezartzen ditu berak

bere soinean artzain gaizoaren phildak; eta xutik, gibelko aldeaz lurrari, bi besoez makhilari buru batetarik lothua dagolarik, gizon bat bezala, bere baithan egiten du:

—Zer den ordean burua yokhatzea! Nola bada etzaiote lehenago gogoratu ene idurikoer, otso baten-tzat, guriki eta beldurrik gabe bizitzeko, biderik hobere-na artzain egitea dela?

Bere buruarekin irriz zagon, ezpainak milikatzen zitu-en eta iduritzen zakon ardi hetarik egunean bat osoa yanik ere, behingo ona, bazuela. Bainan ederki baiño ederkiago egin nahiz, horra nun burura heldu zaion ar-dien biltzeko, artzainak bezala xixtu egin behar duela. Eta xixtu nahiz ahoa zabalduz xixtu-ordez orro iziga-rrri bat entzun arazten du, inguruetako mendi-harroka guziak inharrosten dituen. Hainbertzenarekin ardi gu-ziak, artzaina eta xakhurra lotarik irazartzen dira.

—Zer deabru dugu hau? —dio artzainak, bere bu-rua buluzia eta otsoa haren phildez yabetua ikhusiz.

Harritua zagon, bainan kapusailaren azpitik otsoaren buztana ageri zela ikhusi zuenean, yauzi batez bere ma-khila khendu zion aztaparretarik otsoari.

—*Huia, potzo, huia*— erarnez makhila-ukaldika, zinpi-zanpa, yo zuen.

Ardiak igesi yoan ziren mendi-aldera. Xakhurrak haumaka eta klisk klask ausikika otso gaixoa odoletan ta burua makhurrik igorri zuten.

(*Garaziko Donazarren ikasia.*)

## MAÑAÑIREN NIGARRAK

Ziberuko erretor bat predikuz ari zen egün batez. Mañañi zeritzaion atsoño bat nigar marraskaz egon zen prediku bitarte guzian. Azkarki mintzatu zen apheza (lau kintaleko gizona beitzen) gogor entzuliak hartuz. Mañañi xipaka nigarrez hurtü(r)ik ikusi züzün. Etxera heltü zenian gelariari Mañañiren keta yöaiteko erran ziakozün, berarekila bazkalarazteko. Lotsaz heltü zen Mañañi, lotsaz mahaiñian yarri ere.

Aphezak:

—Zertarako egin düzü, Mañañi, hain beste nigar?

Mañañik etzian erran nahi. Aphezak ardua azkarki eman zion. Bazkal eta berriz galta egin zeraukon.

Mañañi arduaz bizkorxiago yarrita.

—Yauna, asi zen erraiten, ene astua aurtemin erori zitazün. Badakizia?

—Bai.

—Lephoko ezurra autsi zitzeion.



—Baita. Domaja!  
 —Ta hil züzün.  
 —Dolügarri düzü, Mañañi, biziki dolügarri.  
 —Ta egün, zure prediku azkarra entzuten niagizü-  
 larik, uste nüzün, yauna, ene astua marraskaz hari zela  
 ta nik niigar.  
 Etxetik berehala athera zien jaun erretorak.

(Ziberoan entzuna, Ligi'ko alaba baten aotik.)

Gertakari au Etxaidek Joanak-joan- en 22-gn. orrialdean dakar. Harritxabaleta apaizari gertatua bezala. Apez onen bi-  
 zitza Jean Baptiste Constantin-ek idatzi zuen.

## MARI URRAKA

Beste izenez Anbotoko damäa. Zazpi urte Anboton ta beste zazpi Oizko koba baten egoten da. Lazkaokoa eida berau. Neba bat eukan, abade zan bera. Mari urraka gaztetxo zala, bere amak sarri askotan koba bateko andra batengana eroaten eban elizarako egunetan. Aitak.

—Mari, oa elizara —esanarren, amak beti arzulora, kobara beti eroaten eban alabatxoa.

Neba abadeak elizara etzala joaten jakin ebanean, burdi baten sartu ta loturik elizpera eroan eban. Sakristeira estola-billa zan-artean, bere arreba gaiztotua su ta gar burdian bertan aidean joan zan. Orduraezke-ro or dabil Mari Urraka Oiztik Anbotora, Anbototik Oiza.

*(Otxandion ikasia, Pedro Goikolea gandik?)*

*(Argitaratzaillak, bere aurtzaroan, aldakuntza batzuekin, bere amona otxandioarrari entzuna eukan au. Arek Mari Urrika deitzen zion.)*

## MARTXOKO OILARRA TA EILALAMIAK

Martxoko ilabetean etxerik abreen edanâztera estudiante bat atra ze.

Edangiotik itzulita etxera eldu zenean, beldurtu ze, eilalamiak arrapatuko otezuten eta bätzakie oilarrak kantatuz ezkeroz eilalamiak etzakikiola eskua ezarri, erran zue:

—Martxoko oilarra, otoi! Balia dakidala.

Oilarrak ordu berean kantatu zue ta eilalamiak asarre gorritan suturik erran zue:

—Madarikatuko alzaio oilar gorri mia, gorrengatik galdu bätut estudiante bilagorria.

*(Aezkoako Abaurrepean ikasia.)*

## MATEO TXISTU

Apaiza zan gizon au ta gaiñera eizari amurratua. Bein, Meza ematen ari zalarik, zakurrak erbi bat aurretik zerabilten eta Eliza-ondotik igaro bear zutenean apaiz eizazaleak beren zaunkak entzun zituen eta, soineko ornamentuak kentzeko ere betarik gabe, elizatik atera ta zakurren atzetik lasterka asi zan. Geroztik or dabil nunbait Mateo Txistu, beti ibilli ta ibilli, bein ere gelditzen eztala.

Bera urbil samar norabait doanean, iru zakurren zaunka diferenteak (1) entzuten dira: bata, au, au, au; besteak, i, i, i; besteak, gro, gro, gro. Mateo Txistuk bere atzetik beti ekaitza uzten du eta berak dakarren ekaitzak amabost egun gutxienez irauten du.

Bera eztu iñork bein ere ikusi.

*(Amezketako Mariana Ziriako'k kontatua.)*

Ikusi "Martin abade" liburu onetan. Bi ipuiok jatorri batekoak ditugu, oso zabalduak gure Euskalerrian.

---

(1) Banak.

## MEZAA TA URA

Jesukristo ta San Pedro alkarregaz ebilzan-yaiegun baten mezatxilinak entzun eudiezan.

—Pedro, goazen eliza orretako mezatara —esan eban Jesukristok.

—Eliza orretako abadea ezta abade ona ta goazan beste batera.

Badoaz aurrera ta aurrera. San Pedro egarri sutsuak yo ta auxe esan eban:

—Maisua, egarriago naiz, egarriago!! Pozik edango neuke ura, balego.

—Oa or beeko trokara, ortxe aurkituko dok iturria.

Yoan zan ta sube bat idoro eban, agotik ura eriola. Bildur bildur, baia edaten asi zan. Jesusek goitik:

—Da Pedro?

—Ur ederra, Maisua.

—Iturria zelangoa dok?

—Subeari dario agotik ura.

—Zergatik eztok orduan, abade dongea izanarren, mezarik entzun gura izan?

*(Igorre (Yurre) errian ikasia.)*

## PERU ARRAIZPE

Barregarri geienak izaten dira eurentzat baino inorentzat egokiagoak, etxerako baino kanpokoentzat mesedegarriagoak. Peru, iñor bazan, barregarria zan; al-perra baina burutsua, gorputz-astuna ta buru-arina, anka-zorra ta begi-zolia. Aspaldion eukazan laiak ugerturik, zoloak latzinik, bedar galgarriak aurrez, etxe bazterrak amaraunez (aremusarez) ondo apainduta, soinekoak dindirri-urtika, idi-beiak gitxi ta argaltxak eurak, sukaldea otza etxe aurreko garaia ganau barik, eskintokia isila ta oilo baakoa.

Peru, etxean ezeukanaren bila auzora sarritxoegi yoanda, zorritzot bat zorritz baino zorrez beteago bizi zan. Gurasoak itxiriko ondasunak lur yo bear eutsenean, agertzen ddakozan astean astean edo sarriago artzeko dunak. Guztiai egiten eutsen abegi ona, baina abegi utsa, diru bako abegia.

Artzekodunak aspertu ziranean, guztiak bat eginda eskribau batzuei eman eutsen Peruri enbargua egiteko

eskua. Eskribauak aurretiaz ots egin eutsen Peruri, esaten eutsela:

—Peru: ain egunetan enbargua egitera yoango gozak.

—Etorri ondoen deritxazuenean.

—Erantzun eutsen berak.

Peruk orduan bere emazte Mariari, bazter batera eroanda, buruari azgura barik azka ta azka egoala esan eutsan:

—Mari, badakin eskribauak zer dirausten? Asteleanean gurera datozala, basegun on bat igarotera.

—Bestetara ez?

—Ezetz diñöe.

—Gurëan zer jagok ba arei emotekorik?

—¿Zer jagonan? Erbikume bi baino besterik ezer ezton bear izango. Auzotegi onetantxe bat edo batek baedodaukaz olako kumatxo bi.

—Zerak jaukazak: Maripa Anbrusenak. Baiña nok ari atara? Len bere zerbait zor dautsagula ta etxok ezer emon nai izango.

—Orretxegaitik emango jon ba: bestela lengorik ezabela artuko esaion. Zemai au asko ezpalitzon, eskribauak datozana bajakin ta arei jaten emateko dala esan ezkerö, emongo jonaz, bai, laster gero emon bere:

—Ta zelan ipinteko? Bazkari txatxarra izango dok iru eskribaurentzat.

—Ik egin, Mari, neure esana. Erbikume bata neuk eröango jonat neugaz basora; bigarrena eukin euk ankatik ondo lotuta. Eskribauak datozenean, nire galde asitakoan, erbikumëari sökea askatuta, berba onek esango dautsanaz: «*Mustur-zuri* oa Arraizko sagastira ta gu-

re Peruri datorrela, eskribauok zain daukazala-ta. Arin ibilli, *Mustur-zuri*».

—Peru: zoratuta nagoala esango jöek.

—Ik egin neure esana, Mari, ta zoro-moro zerbait egingo jonagu. Ez besterik ezer aitatu gero.

## II

Eldu zan astelena ta goizeko eguzkiaren atzetik, izerdi-zapiak kapelapean ebezala, eldu ziran iru eskribauak euren mutil ta guzti. Perugaitik Mariari itandu eutsenean, onek eskaratzeko txixilu-barrutik erbikumea atara, ankako lokarria askatu ta esan eutsan:

—*Mutur-zuri*: oa Arraizko sagastira ta gure Peruri datorrela, eskribauak zain daukazula-ta. Arin ibilli, *Mutur-zuri*.

Berba onek entzueran erbikumea inoizko bizkorren joian, eskribauak arriturik egozan berari begira, mutilak apurren baten jarraitu eutsen; eta arik lastertxora agertu zan Peru, erbikuma bat kaltzerpean ebala. Eskribauaok zurturik, bidera urtenda, Peruri arrera ederra egin eutsen.

—Egun on, gizonak. Gaur lango eguraldi bero sagoritan iluntzerarte eneban uste agertuko zinenik.

—Zelan jakin duzu bada eldu garana?

—Arraizko sagastian nengoan eta arrapaladan *Mutur-zuri* etorri jat, Marik bialdu dabela ta zain zaukedazala esatera.

—Zelan ikasi jok ba berbetan?

—Zelan ikasten dabe jostunen sozoak soñua josten? Onek be bardin; neure ekinaz edozein mandatu egiten ikasi dau.

—Orixe saldu bear dauskuk, Peru.



—Ezta..., ezta..., ezta...!

—Urte bete atzeratuko ddoagu enbargua egitëä, artëtan zorrai geuk arpegi emongo ddautsegu.

—Zeuek zarëlako or dozue bada: bestela erregeri bere eneukan emoteko usterik.

Erbi onegaz iru eskribauok euron bidetan joazala, bati otu ddakon erbi mandataria urrengo ostatura bialdutea.

—*Mustur-zuri* —esan eutsan—, jöän adi or beko aldera, bide barri ondoko ostatura ta ea sei lagunentzako bazkaria ipini al izango daben. Arin ibilli, *Mustur-zuri*.

Bai ta pozik joan bere; baina eskribauok atzean itxi ebazanean etxakan erbiari bururatu ez ostaturik, ez bazkaririk.

Ordu erdi igaro zan, ordu bete, ordu ta erdi... ta *Mustur-zuri* etzan agiri.

Buruari azka asi ziran eskribauok, zer esan ezekie-la. Mutillak, ugazaben isilik, berre egiten eben. Onetan eurakana Peruren auzoko Maripa Anbrusena zan, buruan pedarkada ura ekarrela.

—Egun on Jaungoikoak dagizuela.

—Bai zeuri bere. Ikusi dozu or nunbait, txakurren igesi edo... *Mustur-zuri*?

—Nor da *Mustur-zuri*?

—Peruk berbetan erakutsi ta menduriko erbia. Ez-takizu Peru nor dan, Peru Arraizpe?

—Bai ondo be.

—Ta eztozu inoiz ikusi, besapean erbi bat dabela?

—Nik eztakit auxe baino beste erbi-konturik. Atzo illuntzean banator, kartetan txist eta txost arratsaldea igaro ta gero, banator etxera ta: «Maripa —entzun ne-

ban—. Eu aiz, Mari? «Zer nai?» «Peruk biar bazkaritarako iru adiskide andi jatorkazala diño ta erbi biak mesedez emoteko, urrengoan ordea emongo dabela-ta». Au entzunda, emon neutsazan neure erbiak ez beraren ederraren, zorrak daustaz ta neuk erbiak emon ezik ezautuko eztaustazanen bildurrez baiño.

Orduan eskribau-mutillak barrezantzoka asi ziran, eskribauak (bi beintzat) amurruarren mutillai agirika. Atsoa zer etezan ezekiala pedarkada uraz aurrera joan zan, eta eskribauak ordu erdiren baten zer egin ezekiala egonda gero, Peru Arraizpegana bigarrenez joan ziran.

### III

Orduko egoan Peru, eskribauak bigarrenez agertuko ddakazana igarrita, ardura andiz zerbait gogoketan. Emaztea beraren aginduz auzotegi guztiko errariak (ogi-arto-talloak) batzen ibilli zan.

Gero bien artean etxe-aurreko mota edo bedartzea azalatu edo atxurratu ta zotal-azpian errariak ezkutauaz batera, agertu ddakezan eskribauok.

—Ona emen gure eskribau jaunok —esan eban Peruk.

—Demoniñotxu orrek, ederra sartu dauskuk. Geugaz katigu (baituran) eroan bear augu, polit ori.

—Zer da, gizonak?

—Zerdan? Ta itanduteko adorea daukak?

—Bidea galdu izango dozue zuek, Orixe dago ba, sarri ibilli ezik...

—Barriketak. Nundik nora asmau dok *Mustur-zuri* edo *baltz* orren okerreria?

—Ene bada ta ni! Zer jaso dan igarri baietz?

*Mustur-zuri* norabait, berak eztakian tokiren batera, bialdu izango dozue ta gero atzerako biderik aurkitu ezinda, bear bada txakurren bat ondorik dabillega...

—Ago isilik, zaplandari ori; aor beko bide-zokondoko ostatura bialdu joagu-ta.

—Zuek txarto emongo zeutsen mandatua. Ekanduta zagoze espanetan bera erderazko berba arrotz gatx asko dingilizka dozuezala berba egiten, da gero zelan aditu, zelan ulertu zuei erbikumatxo batek?

—Peru... Peru... Adarrari bigarren soñua atara nai aldautsak? Lengo irri ta burla egitea ezaldok asko izan? Maripa Anbrusenaren erbiakaz egin dauskuan adarra jotea, onen arin aztutekoa dala uste dok?

—Jaunak ba... Jaunak ba... eztozue gugaz bazkaldu gura izan, eta guk barriz Maripa Anbrusenari, zeuerri bazkari itxurazko bat emotearren, eskatu geutsazan. Zuek eztozue gura izan, eta zer egingo genduan? Bein ekarri ezkerro, zimaurtzara botako genduzan?

—Peru: tira gugaz urrengo presondegira, guzur-urtika ta iñor irakiten emen egon barik.

—Ezegidazue bada, ori esateko, saputzetik eldu, katarra enaz-ta.

—Tira, tira.

—Nik onakoxean bada eztakit zer egingo neukean.

Au esanaz asi zan Peru atxurraz, amurruz legez, montan or zulo emen zulo egiten; eta zulo bakotxean edo ogia edo artoa edo taloa agertu zan. Au ikuseran arritu ziran eskribauak eta itandu eben:

—Ze atxur dok ori, Peru!

—Ai au! Eskerrak beroni bizi gara gu onen aukeran. Zegaitik dozue ba eztodala nik galgarau ez artagaraurik ereiten? Atxur onetxek emoten daust nai bes-

te errari. Etxaurreko mota onetantxe lurra azalatu ezkerro, beste nekerik eztot bear.

—Salduiguk atxur ori.

—Saldu? Au erosteko dirurik eztago inguruotan.

—Eukiten emoiguk ba amabost bat egunerako; ta beste urte betean ire zorrai geuk arpegi emongo jau-tsegu.

—Orrenbeste mesede gizonari egin leio. Eroaizue atxur ori, baina amabost egun orretan zelan bizi izango naiz berori barik?

—Gauza erraza dok ori. Ataraik ontxe mota onetan amabost egunerako erraria.

—Bai ta egia.

Peruk atera ebazan ordu erdi lenago sarturiko errariak eta atxurra emoeran esan eban:

—Gero, gizonak, ez uste izan edozein lurretan ogi nai arto nai taloa atara leikenik. Noberaren etxe-inguruko lurretarako dauko atxur onek beronen al izatea.

Au entzueran atxur ori artuta alde egin eben iru eskribauak.

Urrengo goizean iruren etxe-inguruak ondo aztertu ta ondiatuta ikusi zeikezan.

Peru Arraizperen atxurrak arria ta arra naikoa atara ebazan; baina ogirik txori batentzako lain bere ez. Au ikusirik, aurreganean baino bere amurratuago yoan ziran Arraizpera eskribauak, atxurra ezkuian ebela.

Orduko Peru ta Maria alkar artuta egozan, eskribauak yoazanean egin bear ebena ondo ikasita. Mariak garrian maskuri (puxika) bat eukan odolez beteta, yake-magalaren azpian, ezkutuan. Peru goizik erdian egon zan adar eze legun legun batzuk ebagi ta azala kontuz kontuz eratsi ta azal onezaz zinburrunak egiten.

Eldu ziran alango baten gure eskribauak eta, ezpanetan amurrua bits egiten eukela, Peruri saputzetik oratuta esan eutsen:

—Demoniñotxo orrek eztok oingotan igesik egingo.

—Zer?

—Zertzeta, burduntzi-ertzean erreta.

—Nora naroazue?

—Gero ikusiko dok asto orrek.

—Zegaitik?

—Tira ixilik eta geldirik.

—Mari, Mari: ik onei gauza txarren bat egin bear izan dauksen, ni onan eroateko; ta nik onakoxean, nai ta urkamendira naroela, edozer egingo neuke.

Au esanda, Peruk aurretiaz eskuetara eukan aitzo zorrotz bat artu ta, sast! emazteari garri garritik puxika edo maskuritik sartu eutsan. Marik berarizko arnasa-ots bat egin eta lurra yo eban, ilda legez, odola zauritik arradan eriola.

Eskribauak au ikusirik.

—Peru, esan eben. Zer egin dok! Emaztea il dok! dok!

—Gizonak. Zer uste zenduen bada? Idisko zoro bat bainintzan iltera eroan nai izan nozue iruron artean, eta odolak, erriak diñoanez, su baga diraki.

—Peru, zer egin dok, errukarri orrek!

—Baiña ez ikaratu: sarri ilten dot nik au. Gaiñibeta bat daukat, ondo ilarren, txistua yo ezkeru len kendiriko bizitzea atzera emoten dabena.

—E!

—Ikusiko dozue.

Peruk orduan artu eban zinburrun bat eskuetan eta, Juiiiiiist! , ots eragin eutsanean, ilak edo iltzakoak be-

giak erdi zabaldu ebazan. Eskribauak arrituta. Juiiiii! , bigarrenen. Mariak arnasa luze-luze bat artu eban. Eskribauak aoa zabalik; Juiiiiiiiist! irugarrenen: Arraizpeko atsoa bere senera etorri zan eta eskribauak konkortuta gelditu ziran.

Peruk bene benetan esan eutsen:

—Gizonak: emazte berdaldunegiak isilkortu ta urtenegiak otzanduteko eztago onako tresnarik. Emakumarik dongenak ondu ta uzuenak bezau leikez: lasterko gero.

—Peru, ik zertarako dok ori? Ire emaztea inoiz berbalduna ta urtena ta donga ta uzua izan badok bere, aurreratu egiguk tresna ori aste bete edo bitarako eta zorrak epetu ez eze garbitu bere geuk egingo ddoaguzak.

—Gizonak: eneutsan nik aù edonori ez emon ez baituko (prestauko); baina gizon argiak zare, zer egin bear dan dakizuenak; eta, aste bete barru atzera neuri emotekotan, eroan egikezue tresna ori.

Esker andiak Peruri emonda euren poza sinistu ezinik yoan ziran eskribauak euren bidean.

#### IV

Kezka ta eztabaiak zer diran eztakienak yoatea baiño ezeuken Arraizpetik uri-aldera iru eskribauai yarraika. Zarrenak, erlikia baizen maiterik, Peru Arraizperen zinburruna eskuan eroian. Beste biak bein banan esetsi eutsen, auxe esanaz, eurak bere etzirala beste bat baino gitxiago ta zinburruna batena bakarrik etzala eta nok lenengo eroan bear eban yakiteko zerbait egin bear zala.

Ona eldueran eskribauen barri dakienen uste ta eri-

txiak bana dira, eztira bardinak. Batzuk dinoe urrengo ardantegira eldueran nok eroango eban bateko urrera erabagi ebela. Beste batzun ustez, zotzak eskuazpian erdi estaldurik, andiena atara ebanak zinburruna eroan ebala. Baiña! nok au sinistu? Noiz ezagutu eteda diru bagako eskribaurik? Bat edo baten eritxian auzitan erabagi eben nor izango zan basa-txilibitu aren yaubetzakoa.

Zana zala, eroan ebanak, etxera eldu zanean, emazteari asarez begiratu ta berbarik adina agiraka egin eutsazan, eta arako emaztea bere gogor egiten asi ddakanean, sast, sast!, aizto zorrotz bat sartu ta beingo baten il eban. Atara eban gero zinburru ori ta asi zan yoten, Juiiiist!, baña zirkinik bere ezaban ilak egin. Juiiiiii!, bigarreanean; begiratu ta alperrik. Irugarreanean luzeagoa: Juiiiiiiits Baina zer? Geldi, gogortuta egoan emakuma errukarria.

Eskribau koko au emaztearen gorpuaz zer egin eze-kiala, uleai tenka ta bea ostikoka apurtu bearrik ebile-la, atean norbaitek ots eginda zinburrun ori bigarren eskribauari eroan eutsan. Oni bere lenengoari legez yazo ddakon. Irugarrenari bardin. Egun bere atantxe, alkar itunduten egonda, arrapaladan yoan ziran Arraizpe-al-dera.

Peruk urrundik eurak iletasoinekoakaz ikusirik.

—Irurak il ddoek, bakotxak bere emaztea. Agur ni —esanda, bidera urten eutsen. Eskribauak Peruren atxaki ta akiakulai jaramon бага, upel baten barruan sartu ta bira biraka itxasora yaurtigiteko usteaz eroan eben. Urrengo ardantegira elduta, eskribauok zerbait artu bear ebela ta bertan gelditu ziran. Peru, upeletik ara bagarik, bide-ertzean itxita.

Onetan artalde bat bertatik igaro zan eta Peru ba-

rrutik upelari ukabilkadak emoten asi zan. Zer etêbilen yakin nairik artzaina urreratu ta, *nor da?* itandû ebanean,

Peruk:

—Ai au dot lorra, au atsekabea! —erantzun eban.

—Zer dok ba, atsekabez egoteko?

—Zer dodan? Erregeren alabeagaz, nai eztodala, ezkondu gura nabe.

—Nai eztoala?

—Nai banaiok, neure oinen gainean yoatea izango naieukek.

—Euk ezkondu gura ezpadok, amentxe naiagok neu, oietarako gertu.

—Upel oni agoa zabalduiok bada ta truk egingo ddoagu bizikerea: ni artzaintzan sartuko nok, i erregeren yauregian.

Ordu erdi garrenean Peru artalde ta guzti bidetik urre ebilen, artzain gizagaisoa barriz itzulika (bira-biraka) eroan eben eskribauak. Noizik noizera.

—Ezkonduko naizala —zinoan upelekoak.

Besteak euren artean:

—Gure Peruri zoratu ddako.

Itxasbazterrera eldueran, iru eskribauen artean bulzaka uretara egotzi eben upela. Atx-arteetan zatizati egin da, artzaina olatu-arteetan ebilen lerrak egiten, gorputza ur-azalean euki ezinik.

Eskribauak euren kurruka ta tipo ta ar txarra Perugaz batera itxasoan ito ebela uste izan ebenean, etxeranozko bidean asi ziran irurak Nork zêtu, nok erakutsi aren ikara ta zurtaldia, Peru Arraizpe, arako *Mus-tur-zuri* ta atxur ta zinburrundun Peru, euren begiak ardi-arteetan, batari txistu, besteari ziri ta besteari



arrika ikusi ebenean!! Peruk euren arpegia ikusiaz ba-  
karrik eban euren buruko kezkea; ta bigun-biguntxo-  
rik, oi ebanez, ezer ezpaileukan itandu eutsen:

Orain bere emen baino etzare, gizonak?

—Peru da berau? Peru Arraizpe!! Eguno onako-  
rik! Nun batu dituk ardi orrek?

—Enozue ikusi olatu artean, kolpe batari ta grausk  
besteari ârdi zuriak batzen?

—Zertan edo atan abilena bai, baina geiago ezin  
ikusi ezan ddoagu.

—Nai izan baneu, onako sei batuko nituan.

—Baldagoz orain bere?

—Bai zuek irurok artuala ta geiago.

—Amilduko nok neu bertara, lekurik onenera?

—Orrenbeste mesede egiteko beti nago gerturik.

—Egotzi nagik orduan.

Peruk bultz gogoz egin eta egotzi eban itxasora bat.

Au zarra ta igari ezekiana zan eta artzaina baino le-  
nago asi zan itoten.

—Zetan ddabilk a? —itandu eutsen beste biak Pe-  
ruri.

—Onenak begiz yo ta artzen dabil.

Arin ezpazabiltze, badakit gaur zer yazoko dan.

—Yaurti gaizak orduan arin arin.

—Ea bada —esanda, bultz egin eutsen onei bere  
Peruk eta tipitapa, beste gauzarik agiri ebala, bere ar-  
diakana yoan zan.

(*Markiñako Txomin Aldazabal'ek kontatua.*)

Ipui au *Putifar* izenarekin jaso zuen aintziña Azkue'k Ur-  
dazurin eta *Euskalzale'n* argitaratu zuen 1899-an. Antzerakoa  
da Mayi Ariztia"k "*Gure Herria'n eman zuen Arttoreñ ichto-  
ria*, 1933-an.

## MOTZAILA BATEN ZORRA

Bein motzaila (ijitanu) bat autortzera (konpesetara) yoan zan. Guzur ta abar bere barru zikiña agertu eban. Bitartean abadeari zortzi ogerleko polito polito ostu eutsazan. Bera, ijitanu zanez erririk erri ibiliaz bizi zala esan autsanean, abadeak berari.

—Ezer ostu dozu? —itandu eutsan.

—Bai jauna, zortzi ogerleko.

—Bada yaubeari emon bear dautsazuz, ostean zerurik eztago.

—Gura dau berorrek artu nire zor ori?

—Nik ez. Yaubeari emoiozu.

—Ta yaubeak gura ezpadau?

—Orduan euretzat gorde egizak.

Esker aundiak emonda alde egin eban andik motzaileak.

*(Gabika (Ereño)-ko Maria Josefa Izpizua'gandik yasoa.)*

## LENENGO AEROPLANUA

Arratiar batek luzaro garun-artean asmo andi bat erabilen: Aranozti Gorbeyara, Gorbeyati Lekandara ta inguru aetako mendirik mendi, txorien antzera egaz ibiltea. Orretako, kainubera me meak alkarri lotuta, ego andi bi egin ebazan. Egaz ibiltan asteko bear eban guztia gertu euka buruak emon eutsanean, auzo ta adiskide batzui ots egin eutsen. Egoak andiak izanarren, astunak etziralako edo, lau adiskideren artean erraz Aranoz-burura eroan al izan ebezan.

An, asmalariari ego biak ondo lotu eutsezanaz batera,

—Ortxe az, bada —esan eutsen.

Egazti barriak (giza-egaztiak) arranoak ikusten euzan legez, pla pla pla eginda, bere burua Aranotzganetik aizetara egotzi (botau) eban. Gizagaisoa, Jesus Amen esan-orduko, lurrera yausi ta Iturriotz-ondoragino bilinbalaunka eldu zan. Luzaro egon zan mutik egin ezinik, noiz ilgo legetxez. Batzuk irribarre eginarren, bere adis-

kide geienak larri egozan. Etziran gitxi pozti begiak eta ezpanak zabalduten ikusi ebenean.

—Bizi az, Martolo?

—Mutilak —onetxek izan zirean Martoloren lenengo berbak—: gauza bat... aitzu ddatkak eta nik... nik... ezin egaz ondo egin.

—Zer aitzu ddak bada?

—Buztana, txori guztiak... buztandunak... dozak-eta.

Eztakigu bigarren azaiadarako azurrak Martolori oso gelditu eta ddakazan. Askok uste dabe beintzat lenengo aeroplanua arratiar batek asmau ebala.

*(Zaratamo'ko Txomin Azkoeta gandik yasoa.)*

Ipui au, 1967-an Bilboko "Kili-kili txortak" argitaratu daben *Ipuiñak* deritxon liburutxoan yasoa dago. San Anton'go katekesisak daroa argitalpen txorta au umeentzat.

## PREDIKAGU BATIAN

Yaun erretor batek apezkupiaren letra bat hartu züzün behin, herriari irakurtzekua. Igantian yoan züzün predikagiara eta irakurtzen hari zelarik, erori ziozün letra eta predikagiaren zilo batetarik maiasturiaren emaztiaren burura heldü züzün. Ordian anderiak izuturik uzker bat egin zuen eta herri guzia erriz asi zen. Aphezak ordian erran zuen:

—Nik maiastuariari maiz erraiten dia kozut zilo hori tapa dezala.

*(Mauleko seme Jacques Pulitek errana.)*

## SAN PEDRO TA ESKRIBAUUA

Eskribau batek, zeruko atarira elduta, dran dran yo eban atea.

—Nor da? —San Pedrok barrutik.

—Eskribaua nozu.

—Eskribaurik eztogu bear emen.

—Arren! Zokondotxu bat, arren! zeure amari zeutsan maitetasuna gomuta dozula, zabaldu atea.

—Erdu bada, erdu barrura.

Adiskide usaineko egin zanean eskribauak atezain andiari.

—Noiztik ona zara zeu giltz orren yaube? —itan-du eutsan.

—Milla ta seireun bat urte, or or, daroadaz atezaintzan.

—Eskritura bagarik egin zenduezan atezain?

—Eskrituraren bat egitea gura etedok? Ut! Kanpora emendik.

*(Gabika'ko Maria Josefa Izpizua'k kontatua.)*

## SAN MARTINEN ESTUTASUNA

San Martin errementaria zan. Bein bere arazo artean, nekearen nekeaz eta beroaren beroaz edo, minduta asarrez egoan gizona; eta Txerreni, estualdi atatik ateratzearren, arimea emoteko gertu egoala esan eban.

Beingoan agertu ddakan Txerren.

—Amen naukak, Martin —esanda.

Ezaut nik bear i ezetarako.

—Euk dei egin daustak eta ona ni.

—Dei egin badauat zer egiten ddoadan eztakidala egin izango ddoat.

—Ta ta ta ta ta! Neugaz bear dok.

Ezetariko gogo bagarik egin dodala.

—Martin: nire eskuetatik jara (libre) bizi egon gura badok, gauza bi egin bear izango dozak oraintxe: lenengoa, burdinazko tresna barri bat asmau; bigarrena, amabi misterio andiak zeintzuk diran esan.

—Burdinazko tresna barri bat!! —agin artean esanda, larri lurrera begira egon zan lenengo; gero goi-aldera, laguntasun-eske bailegoan; eta gaztaina-adarretan akasdun orri eder luzeak ikusteak burutasun barri bat sorrarazo eutsan garun-arteana.

Gero urduri-urduri lanean asi zan. Burdinazko zatai ta aillarak sutan sartu ta txingura-ganera porrikaz ekarri ta taunk ete taunk, taunk eta taunk ekin eutsan San Martinek lanari... Lenengo zerreak orduantxe gizon baten eskuartetik burua atarau eban.

Bigarren eskabidea, amabi misterio andiak aitatzea, bien artean egin eben: Txerrenak itandu, San Martinek erantzun.

—Martintxo: esaik bat.

—Gure Jauna bera dok bat, berak salbauko gaiozak; baina ez i.

—Martintxo: esaik bi.

—Erromako altarak bi, gure Jauna bera dok bat, berak salbauko gaiozak; baina ez i.

—Martintxo: esaik iru.

—Iru Trinitadeak iru, Erromako altarak bi; gure Jauna bera dok...

—Martintxo: esaik lau.

—Lau ebanjelariak lau, iru Trinitadeak iru, Erromako altarak bi... eta abar.

—Martintxo: esaik bost.

—Jesukristoren zauriak bost, lau ebanjelariak lau, iru Trinitadeak... e. a.

—Martintxo: esaik sei.

—Sei argi-egileak, Jesukristoren zauriak bost, lau ebanjelariak... e. a.

—Martintxo: esaik zazpi.



—Zazpi Sakramentuak, sei argi-egileak...

—Martintxo: esaik zortzi.

—Zortzirak dira zeruan, zazpi...

—Martintxo: esaik bederatzi.

—Bederatzi ornamentuak... eta abar...

—Martintxo: esaik amar.

—Amar mandamentuak... e. a.

—Martintxo: esaik amaika.

—Amaika milla aingeruak... e. a.

—Martintxo: esaik amabi.

—Amabi apostoluak, amaika milla aingeruak, amar mandamentuak, bederatzi ornamentuak, zortzirak dira zeruan, zazpi sakramentuak, sei argi-egileak, Jesukristoren zauriak bost, lau ebanjelariak lau, iru Trinidadeak iru, Erromako altarak bi, Jesukristo bera dok bat, berak salbauko gaiozak; baina ez i.

—Martintxo: esaik amairu.

—Eztok amairu.

—Badok amairu.

—Oilarrak yoten dau munduan, aingeru ederrak zeruan, neure arimea izten dausat Andra Mariari alzoan.

Eta orduan itsutu (aienatu) zan Txerren.

(Bizkaiko Ermuko andra bategandik ikasia.)

“Ez dok amairu” euskal kantari berrien taldeak emendik artua du bere izena beldurraren aurka jardutzeko.

Azkue berak oar batekin zionez, amabi misteriuak numeratuz emanaz jaso zuen Vinson'ek bere *Folklore du Pays Basque* liburuan *Le douze Mystères* izenez.

*San Martin-txiren ipuiak. Prometeo-ren antzerako doai-ekin. Barandiaranek asko jaso ditu Ataun aldean. (Argitaratzaillearen oarrak.)*

## TXARTELETAN MUTIL BAT

Mutiko urtentxo bat txarteletara yoan zan bein. Abadeak, bere aldia eldu zanean, zirikatzearren edo

—Txotxo —esan eutsan—, amar mandamentuak zenbat dozak?

—Bost yauna.

—Bost geiago.

—Or dago —mutiko lotsa gitxikoak.

Barre, ume ta ume erezi, inguruan egozan guztiak.

Orduan abadeak berriro ziri eragitearren.

—Txotxo —itandu eutsan—. Jaungoikoa leku guztietan ddago?

—Bai yauna.

—Orduan zuen laban bere bai.

—Gure laban, ez.

—Zelan dok ori? Eztiñok bada leku guztietan dagoala Jaungoikoa?

—Bai.

—Ta zuen laban, ez?

—Ez, gurean eztago labarik eta.

*(Gorozikako Inasio Larruzea gandiķ yasoa.)*

## TXINDOKIKO (1) MARIA

Emakume bat, bere modukoa, omenda Maria au. Zazpi urtetan Txindokin eta beste zazpitan Burumendin (2) egoten da. Santa Kurutze egunean, hura leize-tik irten baino len egin bear da konjurua; bestela urte hura trumoitsua izaten da. Leize orrek Deabruaren Leizea du izena. Su ta gar etortzen omenda Maria ori Burumendi-aldetik, ara joaten danean ere.

*(Amezketako Mariana Ziriako'k kontatua.)*

Ikusi: "Mari Urraka", badu berakin aidetasuna.

---

(1) Txindoki Aralar'go mendi zorrotz bat, Amezketa gainean. Larrunarri ere deitzen zaio.

(2) Burumendi, Murumendi noski, Beasain gainekaldeko mendi bat.

## LAMINA BAT ETA HOMEROREN KYKLOPS (CICLOPE)

Etxe batean txamineitik laminak yausten ziren iruten ari zen-emazteki batengana, au erranez:

—Urin-prox, urin prox. (Artoorez ta urinez nasuriko zerbait omenda urin-prox au.)

Arrats guziez ala yausten ziren.

Egun batez bere senarrari etxeko andreak erran zakon:

—Laminek etxeko urin guziak yaten ari dazkiate.

—Ago —erran zakon senarrak—, ago: niau yarriko nun gaur iruten. Arranyatuko dinat bai nik lamina ori.

Eta emazteain erropak yauntziz iruten yarri zen. Beiti bezela a(rr)ats artan ere lamina txamineitik beiti yautsi zen eta iruleak beste a(rr)ats etan bezela iruten etzuela oartzuz, erran zakon:

—Bertze a(rr)atsetan, firrin firrin, ari izaten intzan; gaur, farran-farran, ari iz.

—Barda lihua ninan, gaur istupa.

—Hik zer dun izena?

—Nik niaun buru.

—Niaun buru, niaun buru: bea zan. Urinprox., urin-prox.

Zartainan urina (e)zarri ziin berotzen iruleak eta irakiten ari zelarik begitartera aurtiki zakon laminari. Marraskaz igan zen lamina orduan txamineiari goiti. Gero lagunak atera zitzazkon, au erranez:

—Nork zer ein daun?

—Ni niaun buruk.

—Arren, nork zer oben du?

Eta geroztik etxe artara laminak etziran geiago itzuli.

*(Luzalde deritzaion urixkoan neronek entzuna.)*

Homerok bere Odisean dioskunez, amabi gizon lagun zituela Begi biribildunen errira, kyklopsenera (erderaz Cíclopes dira Begi bakar biribildun gizatar aiek) eldu zan bere gizurera eldu zan bere gizurera (protagonista). —Bizitokitzat arzuloak (kobak) zituzten alde aietan. Onetariko arzulo bat arkitu zuten utsik eta gaua an igaroteko ustez sartu ziran Ulises ta bidaideak.

Ilun nabarren zuloko jauna âritalde ta guzti toki artantxe sartu zan. Arkaitz batez sarrerako unea itxita, sua egiten asi zan. Garren argitasunen bizi lagun berriak ikusi zituen ta itz egiten asi zan. Bere mintzura (boza) entzute utsez izutu ziran amairu greziar aiek.

Erraldoiak, aien eske ta galdeai ez entzun eginez, beren arteko bi il ta jan zituen. Urrengo goizean beste bi il ta jan ta iretsiz, arkaitz andia atetzat utzirik, artzain mendi-aldera joan zan.

Ulises ta lagunak beren buruak nola gordeko zituen erabaki nairik luzaro ari izan ziran gogoketan eta izketan. Begi bakardun erraldoiak iluntzean berriz barreneratu zanean, beste bi gizon il ta sabeleratu zituen. Aseta zegoela ikusirik. Ulises aurreratu zitzaion, besapean zaragi bete ardo on zuela eta andik edanarazi ere bai.

—Zer izen duk? —galde egin zion berak Ulisesi.

—Nik Outis —erantzun zion Ulisesek. (Greziarren Outis ta erderazko nadie bat dira.)

—Outis —esan zion orduan besteak—: i azkenean jango aut, guziak iretsi ta gero i. Auxe izango duk nere esker onaren ezaugarria.

Mozkorrik lo gelditu zan. Besteak aldearez gertua zeukaten-taket gogor bat sutan goritu ta begi bakarrean barna sartu zioten Orditzarrari. Garrasika ta marraskaz jeiki zan au ta bereala beste kyklops (begi-biribil) batzuk sertuz, galde au egin zioten:

—Nork egin dik?

—Outisek.

—Inork ezpaldin bau zauritu, eramaitzak orduan egoarriz ire naigabe ta oñaze oriek.

Eta au esanez beren zuloetara alde egin zuten kyklops etorri-berri aiek.

Gai oni buruzko zeaztasunak ematen ditu berak Azkue'k *Euskalerraren Yakintza*'ren, II-gn. tomoaren 217-garren orrialdean.

JUAN MIGUEL EN AYORRA

Antzerako konparaziok dakarzki Caro Baroja'k, Euskalerriko lamifiñeri ta beste zenbait siniskerari buruz, bere *Algunos mitos españoles y otros ensayos* en 29/72 orrialdeetan. Madrid, 1944.

Euskalerriko mitolojiak gaiñerako erriekin duan zer ikusia argi azaltzen du Joxe Miel Barandiaran'ek bere "Eusko-Folklore" (Materiales y Cuestionarios). *Munibe*, tomo VI, 286/294 orrialdeetan. Sociedad de Ciencias Naturales "Aranzadi". Donostia, 1954.

Ulises-en gertariarekin zer ikusia dute Barandiaran-ek Ataunen, Zegaman eta Mutrikun jasotakoak.

Ikusi: *El mundo en la mente popular vasca*, leen tomoa, 40/44 orrialdeak.

(Argitaratzailearen oarrak.)

## JUAN MIGELEN ATORRA

Atorra bakar batzuen Juan Migelek. Egun euritsu batean busti zitzaion eta oatzerakoan laratzean yarri zuen. Urrengo goizean erreta arkitu zuen. Andre Mariaren eguna zan, ta elizara yoateko, emaztea bere adiskide batengana atorraren bila bidali zuen.

—Bat bakarra dut eta hura soinean daukat —eranzun zuen adiskide onek.

—Juan Migel: atorra gabe yoan bear izango duk mezatara.

—Ezaldin eman astakaikuak?

—Bat bakarra duela eta hura soinean daukala esan dit.

—A ze pulamentuko gizona, atorra bakarrez dagoena! —esan zuen orduan Juan Migel atorra gabeak.

*(Goldarazko Andres Astiz'ek kontatua.)*



## ZERU-ZALEAK

Ezkurrarrak beren mendi Oli deritzaionera yoan ziran bein, andik zerura igateko asmoz. Orretarako uriko saski guziak bildu ta ara eraman zituzten. Oliton-torrera. Erritarren artean mutiko zauliena begiz yo zuten, lenbiziko ikustatea edo probantza egiteko. Saski guziak alkarren gainean azarri ta gero. Ezkurrar mutiko zaulia goitirengoaren gainera igan zen eta andik bere erritarraj erran zien:

—Bat bear dut zerura eltzeko, saski bat.

Geiago etzegoen ta zeru-aldeko mutiko zauliari bat emateko, zer egin zuten? Azpirengoa kendu. Ezkurrra etzan, bizirik beintzat, zerura txoil eldu.

*(Manuela Ernandorena'k, Bera'koa?)*

Oarra: Argitalpen au gertatu duana oroitzen da bere aur-tzarroan Eibar'en, mutikoen artean, kontatzen zala ipui au.

## KUKUBEL

Umezurtza zan Kukubel, artzaina ta neskato ona gainera; musikazale utsa. ¡Zii ta arte ta ezpelezko instrumentuak (yoareak) egiten mutila zan gero bera! Ak egindako zinburrun, txistu, txilibitu ta txirulak, amai-ka txori pozez kantaritu ta zoratu eroezan!. Ardiakaz larra ta bedartzeta ebilen artean, elizaren bateko txilina-ots egiten eben bakotxean ezaban itxiko Agur Maria bat esan bagarik.

Bein bere errezu-ostean, Andra Maria andi-andirik agertu ddakon eta maiterik itz onek zuzendu eutsazan:

Neskato, zernai don saritzat?

—Nik txilibitu nai neuke, entzun dagianari dantzaz eragiteko txilibitua.

Berealaxe eskuan instrumentutxu (joaretxu) ori sortu ddakan. Pozarren asi zan Kukubel bera joten eta ardi ta bildots, txistuak entzunda, triska ta triska dantzaz ebiltzan.

Egun atantxe, beste asko ta askotan lez, abade eizaria inguru aretaxe eldu zan ta sasi-artean egoan ostenduta, erbia noiz etorriko. Kukubel, zer yazo bear eban burutan artu bagarik, bere txilibitu barria yoten asi zan; ta elizgizona triska ta triska sasitzako lar zorrotzak soineko ta aragiak urratu-arte dantzan ibili zan. Aren asarrea, txilibitua isildu zanean! Gaua ganera etorri baino lenago Kukubel sorgina zala ta urkamendira eroan bear ebela —esanda errikoak baitu ta loturik euki eben.

Biamamonean urkamendira eroela, erri guztia bere inguruan yoian. Onetan Kukubeltxuk mesede bat eskatu eutsen: il bear baeben bere, eskuak askatu egioezala, indarga eukazala-ta. Abadeak aren eskuak jara (libre) ikusi ebazanean.

—Gizonak, bada ezpada lotu nagiozue ni gabiardatz bati —esan eban.

Lotu ebeneko, Kukubeltxuk, arako txilibitua zarpatik atarata, txiruliruli jo ta jo ziarduan.

Bere ots gozoa entzunda erri guztia irradan (dantzan) asi zan. Abadea bera, lotuta egonarren, tauntaunka ebilen eta barreen barrez ito-bearrik.

Kukubel, soiñu luze zoli ezitia amaitu ebaneko, lokabe ta deslaj itxi eben.

(Murelaga'ko Maria Martinak kontatua.)

Bilboko “Kili-kili txortak” agertu berri du *Ipuñak* izeneko liburuxka bat. Bost ipuiñetatik lau Azkue'nak ditu; bere-tariko bat *Kukubel*. (*Argitaratzailearen oarra*).

## AMEZKETARRA TA MADRILTARRA

Lapur andi batek (Madriltarra zan bera) beste bat Gipuzkoan bazela entzun zûn eta hura ezagutzera etorri zen. Amezketara jo zûn orretarako. Alkar bat egin zui-nean, Madrila jûtea erabaki zuin. Bidez zijoazela amezketarrak, pago baten adar-artean belakabia ikusirik:

—Arako egazti hura kabiatic izutu gabe, arrautzak atera dezaizkiona, a zer mutila!! esan zûn.

—Aterako dizkiogu bada— esanez pago-gainera yoan zen madriltarra.

Kabiaren beiko aldetik zuloa poliki eginta banan banan atera zitzion arrautzak. Bitartean amezketarrak, isil-isilik bere azpiko aldera igoz, aren sakelatik arrautza aiek bere sakelan sartu zitûn ta igo bezelaxe isil-isilik ya-txi zen. Kabia ustuz zûnean yetxi zen madriltarra ere, egaztia bere lekuan utzita.

—Orra, esan diaten bezela, arrautzak kendu zitzioat.

—Non ttok arrautzok?

—Eskua sakelan sartu ta bat bakarra arkitu zûnean.

—Elkarrentzat lagun gaittok eta elkarrekin yoan bear diagu.

Au esanez, ibiltzen asi ziren.

## II

Madrilen artxibo batean dirua zegon ugari, ongi gordea. Bi lagunak arera eldu ta berealatsu norbaitek, andik arlanduak kenduz dirua urritzen zûla nabaritu ziren. Ebaslea nor otezen yakin nairik, lengo lapur zar entzutsu, itsutua zegon batengana urbildu ziren artxibokoak. Sua pizteko esan zienitsuak, arritartetik keea aterako zela-ta. Gero lekera (goma) yarri zuin itsu aren aginduz, lekera artan lapurra geldituko zelakoan.

Urrengo gauren batean berriz artxibo artara bi lagun aiek urbildu ziren. Lenago bezela, arlandu bat zankaz (palankaz) bien artean lokatu ta kenduz, madriltarra barrenean sartu ta lekeratzen, ez gora ez beira ezin zûla, gelditu zen. Laguna, luzaro itxoiten egondakoan, zer agi otezen yakin nairik, poliki ta arduraz barrenean sartu zen. Andik ildakoa ateratzeko egin zitûn alegiñak alpe-rekoak zituela ikusiz, iñork ezagutu etzezakean, burua moztu zion madriltarrari bere lagunak eta etxera eraman zûn, soinekopean ongi estaliz, lagunaren burua.

Biaramonen lapur burumoztua arkitu zuinean, berriz lapur zar itsuarengana argitasun-eske yo zuin artxibokoak. Gertatu zena yakitean, aurpegian poza ageri zûlarik.

—Ogeita lau urte ta begietako argia banitu a zer laguna orixe neretzat! esan zûnitsuak. Lapur erne ori

nor den yakiteko, eskale bat limosnaketara bidali zazue zoko-moko guzietara. Lapur-andiak limosnari andi izan oi dire. Ni ere orrela nintzen nere egunetan. Dirua ugari emanen dien gizonaren etxean galtzin-zati batez gurutzea egin dezala eskaleak eta datorrena ikusi.

Eskaleak, agindu ziotenez, Madrilgo zoko-bazter askotara yo zun limosna biltzera. Amezketarrak duro bat eman zion. Galtzinez gurutze bat egin zûn eskaleak ongilearen atean eta etorri zan baino lasterago itzuli zen bere bidean.

Amezketarra etxetik norabait irten zenean, gurutze hura ikusirik, galtzin-puska bat nonbait erosi ta rrrira rrrira aldameneko ate guziak gurutzez zuritu zitûn. Eskalea, biderakusle zuila, artxibozai ta amameru batzuk kale artan laster agertu zizen. Aien amurrua, ainbeste gurutze ikusi zituinean! Zeinetan sartu? lapurra nor zen zeinek ezagutu? Berriz ere itxuarengana itzuli ziren eskale, artxibozai ta amameruak. Bigarren aldiz ere «Ogeita lau urte ta begietako argia», aipatuz, burubide au eman zien itsuak argizale aiei:

—Ar ezazue, gizonak, lapurraren ilotza ta berak len zituen soinekoz yantzi ezazue; eta ilotz yantzi ori zamari baten bizkarrean ongi lotuz, kalea gora kalea bera erabili ezazue gurutzedun etxe orien aurrean. Lapur il burugabeak laxter salatuko du bi buru ditûn lapur bizi ori.

Amezketarra zapatari zen ta larruardean ematen zitûn aste-erdiko egunen ordu batzuk. Beraren dendaurretik ilotz burugabea igaro zen arratsalde batean, zapatariak ikusi ta itsu eginarren, bere emazteak garrasi egin zûn. Senarrak orduan, gainera zetorkiona zomatuz edo,

andreari buruxez (guraizez, artaziz) beatzean ebaki bat egin zion. Berealaxe sartu ziren zapatarikoan lapurketa-riak.

—Zatozte gurekin.

—Zuekin nora ta zertara?

—Buru-moztale zerok izan zerate. Garrasi egin du emakume orrek burugabeko ilotza ikustean, eta ortik igarri dugu...

—Garrasi eginen eztu bada, buruxe onezaz beatza ebaki baitiot? Zuek ere eginen zenukete, bai.

Luzaz (luzaro) izkamizka ari izanez gero sartu ziran berelaxe irten ziran mandazain, amameru ta lagunak.

Gero gorputzaren gana burua ekarriko zuilako, etxola batean utzi zuten gorputza (ilotza), zelatariak zokoetan zitula. Ilunabarrez, ekaitz-zantzua somatuz, zaldi-gainera yoan zen amezketarra, bidezorroetan burua ta gainera ardoa ta ogia zeramazkiela. Euri-erauntsia asi zun ta barren, etxola-barnera, sarrarazi zioin. Ogia ta ardoa eman zioin zaldizkoari, amezketarrari. Gero «berak ere ardoa bazuela» esanez, besteaj edaten berea eman zien. Eta nonbait ere ardoak lo-belarra zulako edo, guziak lo gelditu ziren. Azkenez bere ebaskide madriltarraren burua etxola artan ilotz-ondoan utzita, bere bidean yoan zan amezketar ernea.

(*Martin Jose Mikelarena Baraibar (Larraun)-goak errana.*)

Ipuin au ta Murelagan (Bizkaian) ikasitako "Lapur zar baten burubideak" (*Euskalerraren Yakintza*, II-gn. tomoan, 223 orrialdean dator) deritzaion ipuin hura alkarren antzekoak dira. Onen antz aundiko ipuin bat kaukasotarrak ere badaukate. Ikusi geigarritzat emaniko berriok.

Kaukaso'ko ipuiaren berri zeatzak ematen ditu Azkue'k *Euskalerraren Yakintza*'ren II-garren tomoan, 53-garren orrialdean.

## TXITXITERA TA IÑURRIA

Txitxitera neguan fan zen iñurriaren etsera, deitu zion bortan, jatxi zen iñurri bat.

—Zer nai dun?

Libosna eskatu zitzaun berzeak. Iñurria igan zen gora eta erran zaun amari txitxitera zegola libosna-eska.

—Ola! —egin zion amak—. Korren bizia dun udan kanta eta kanta, gero neguan endura. Erran dazan txitxiterari, nai badu neguan xan, gore gisa aplikatzea deila udan. Emon dazan bortaz sudurrean eta igan adi.

(*Bidangoze (Erronkari)-ko Mariano Mendigatzak errana.*)

Abereen ipuiak ere oso zaarrak dira Euskalerrian, beste batzuen artean, Barandiaran'ek ugari eman ditu bere "Eusko-Folklore" orrietan, bertatik bilduak ikusi *El mundo en la mente popular vasca* (Añamendi Argitaldaria. Donostia, 1961), 2-garren tomoa, 128/159 orrialdeak, era onetako ipuiz orniuak.

Europa zarrean Esopo gandi zabaldu ziran era onetako ipuiak lehen aldiz, baiña beren iturbururik zeatzenak induen *Panchatantra* eta *Hitopadesa*'n dituzte noski, abere-ipuiak emen arkitzen baidira lendabiziko aldiz idatziak. Hertel'en iritzi Kristo baiño berreunen bat urte lehenago idatzia da *Panchatantra*, 87 ipui dituana, ta *Hitopadesa*, gerorako idatziak, 43 ipui, beretarik 25 lenengoan arkitzendiranak. (*Argitaratzailean oarra.*)



## ZULO BAKOTXARI LARAKOA

Baserritar amarrutsu bat konpesetara agertu zan bein.

—Ezer ostu dok? —itandu eutsan abadeak.

—Artegi baten ari bat ostu gura izan neban bein; baina, zuloa txikiegia zalako, bertan itxi bear izan neban.

—Guraria asko da, egindako beste da ta ordea emon bearra aiz. Peseta biko bat arimai, eskekoai, zeri edo ari emon bear izango dautsek.

—Berorreri emotea bardin ezeteda?

—Emongo dautset nik beartsuai ta ekak gura badok.

Baserritar ori emakumak konpesaten diran aldera yoan zan ta sareko utsune-artean dirua ezarrita.

—Artu bei, yauna, artu bei peseta biko au —esan eutsan.

—Baina nik ezin oratu dautsat.

—Bardin yaso ddatan neuri bere.

*(Maria Josefa Izpizua Gabikakoak esana.)*

## SEI BARRIZALE

Mendi-arteko basauritxo zelaitzu baten eiztari erri-me bat bizi zan. Ezddakon beste gaitasunik, esatekorik beintzat, ezagutzen, eizarakoa izan ezik. Bolaka ari irabaztekoak aurrez egozan, parratean asten zan geienetan galdu egiten eban; muserako etzan ustelena, egia da; baina besterik ez lako amarrutsua bere ez. Erbi nai eper nai galeper nai oilagor nai basaurde ilten, orretan bai, inguratean ezegoan bere negurrikorik. Zelayetako eiztariaren izenak nuñ ezaban orduan ots egiten? Arrotzen bati entzunda edo, urrunetara yoateko gogo bizi-bizi bat buru ta biotzean erne ddakon, gauza barriak ezagutzeko guraria. Orretarako lagun bat edo beste nai ebazan, zerbaiterako gai ziranen batzuk. Bere yaioturitxoan ezegoan berari begia betetekorik iñor ta bakar bakarrik biderrik bidarte ibiltan asi zan.

Bera arritzeko zer barririk gizon bat izan zan, ibiltan asi ta bigarren egunean errotarri bat ankan lotuta eukan gizon andi lerdan-lerdan bat. Urruntxotik izketan asi ddakon:

—To, zetan diarduk edo zek auko olan geldi?

—Bizkorregi ez ibiltarren, noizik noizera errotarri auxe ankeari lotu bear izaten ddautsat. Erbiren bat aldatz goran arineketan ikusi dagidala, bere atzetik ibilten asiko nok eta bizkorregi ibilten noalako, berantz asita sarri iges egiten ddauskat. Neurez nok ni onelakoxea.

—Neugaz munduan ze barri dan yakitera ta ikustera, etorri gura dok?

—Euk gura doan lekura. Aurra!

Badaoz, badaoz, badaoz ta arbi ederrez beteriko solo zabal baten egalean iru legua sakon zan leza bat ikusi eben, leza-ondoan bera zulatu eban gizon soksotsu bat, belarria lurra yoten eukala.

—Zetan abil edo zeri akio, mutil? Belarrian min edo? —itandu eutsan eiztariak.

—Eztakik azi bat lurrean erein ta lastertxo usteltzen asten danik? Eta ustela barriro zindotzen eta zindotuz bizi barria eriotzearen altzoan erneten? Au ezaldakik?

—Olako umekeriai etxautsegu yaramoten guk.

—Azi ila birbirtuz birbirtuz birbirtuz lur-azalean agertzen danean, ernamiña ddok izena. Ta ni ernamin onetxek gorantz datozela egiten daben intziritxo motel-motela entzuten egoten nozue. Nire belarriak baino zurragorik, ez ain zurrik, etxaukak ez odeietako egaztik, ez basoetako erbik, ez lorarteko erlek, ez legearen igesi bizi dan lapurrek.

—Geugaz etorri gura badok, zetarako edo atarako izango aldok ire gaitasun ori. Nik emendik iru leguan dabilen basusoa begi-barruan artu badagit, zist!, yaurti gezi txiki zorrotz bat eta laster lur yo eragango dautsat. Nire lagun au, badakik okintza batetik urteniko kea errekaizeegunetan iparraldera zein arin, bizkor yoa-

ten dan? Au errekaize egunetako ke orixe baino bere bizkorrago ibiltzen ddaku: Gura dok munduan ze barri dan yakiten yakinarazoten irugarren izan?

—Aurra! Goazen noranai.

Ezeben aldatz andirik gora ta bera igaro bear izan euren antzeko lagun bat aurkituteko. Garrazta baten ondoan, inoiz inausi bagako zugatz andi baten ondoan, zer-bait egiten, norbait ekusen.

—Mutil, zer darabilk or? —itandu eutsan eiztariak.

—Zugatz tantai onetzen zilaz bigur bat egiten ddiar-duat.

—Zetarako gura dok bigur ori?

—Neure tellapean errotea egin gura naieuketik. Orretarako ura bear. Nik, orainarteko indarra besoetan baddaukat, bigur onezaz zuztar-zuztarretik ondo lotuta errecondora eroango ddoat etxea.

—Ori onazkoan egin al izango dok.

Ator orain geugaz, mundu zabalean ze barri dan ikustera gaiozak-eta.

—To, arrobiko arri-yale, gozo alddagozak arkosko orrek? Ze burutasunek yarri au, arto-zatiak bailirean, arri-yaten egoteko?

—Nik gura gaiña arri yanezkero, atzea emon ta arri-urtika asitakoan, gizalde osoari iges eragingo neuskio.

—Arranoa! Guztion artean gauza andiren bat egin-go ddoagu ta ator geugaz.

Seigarren laguna laster arkitu eben. Mendi bati sorbaldaz eusten ikusita, zetarako egoan itandu eutsenean, alboko uri polit ori azpian artu eztaian, mendiari eusten egoala erantzun eban. Eurakaz yoatea ontzat artuta, ibil-

ten asi-orduko bultzada bat emon bear izan eutsan mendiarri.

Ona bada sei barrizaleak: Eiztaria, Lasterkaria, Entzulea, Indartsua, Arrikalaria ta Uri-yagolea.

Ibilten asi ta bakoitzak bere gaitasuna yakinarazoten ziarduala

—Ixo, mutilak —esan eban Entzuleak—. Emendiek iru legua bidean erregek bere asmo bat erakusten diardu.

—Zer ddiñok erregek?

—Bere mirabe batek baizen bizkor, pedar bete ur ain iturritik dakarrenari, gizon batek yasoala diru emongo deutsal.

Eiztariak, au entzueran, bigarren barrizaleari:

—I, Lasterkari —esan eutsan—, askatuik ankan lotuta daukan errotarri ori ta arrapalan erregeren aurrean agertu adi.

Agertu zan au erregeren aurrean ta peddar buruan ebala iturrira beingo baten elduta, urez bete ta kea baino lasterrago etorrela, erregeren mirabe sorginak, temea galdu eragitearren, lo-bedarra surrean ipini eutsan.

—Galduak gara oraintxe —esan eban Eiztari begi-zurrak—. Gure lagun Lasterkaria lo dago. Ez orregaitik larritu. Neuk iratzarriko dot.

Sorbaldan zearka eroian iskilua araxe begira ipini ta bup eginda lo egoan Lasterkariari, lo-bedarra surretik kenduaz, inor baino lenago, urdun peddar buruan ebala, azkenera eldu eragin eutsan. Sei barrizaleok an egozala, erregek, emoniko itza bete bear ebala-ta saritzat eskini-riko dirua nok eroango etêban itandu eutsen ingurukoai. Indartsuak, aurretiaz Eiztariak esanda edo, sei idiren narruzko zorro andi itzal bat gertu eukan. Zorotzar ori di-

ruz bete eutseneko, lepoan artuta, bots lagunak alboetan ebazala, uritik mendialderatu zan.

Erregek dirua kendu gurarik gudaritalde bat bialdu eban euren atzetik, Eiztariak, urrundik ikusi ebazaneko, Arrikalariari.

—Aurra, lagun; ortxe aiz ba —esan eutsan.

Arkoskoak yan ta yan ta yaten ordu-lauren bat igitota, erregeren gudariai atzea emon ta arrika birrinduta itxi ebazan; lau zauriturik, ilda beste enparauak.

Mendi andi baten egalean atsedean artu ta dirua bantzen beste ezeren ardura bagarik egozala, Eiztariak urrundik len baino bere gudari-talde andiagoa etorrela ikusi ebanean,

—I —esan eutsan Uri-yagoleari—: ortxe aiz i bere.

Onek, gudari arek mendi-barrenera eldu ziranean, beste aldera yoan ta bultzada bat mendiari emon ta bere azpian zapal zapal eginda geratu ziran erregek bialduri-ko soldau guztiak.

*(Murelaga'ko alaba Maria Martina Maruri-gandik labur-laburrik arturikoa.)*

*Alkartuak deritxon ipuina onetxen antzekoa da. Euskal-erriaren Yakintza'n, II-gn. tomoan, 26-gn. orrialdean dator.*

## A M E N

Iluntzea zala, aker bat elizan sartu zan. Sakristau mutilak, atea itxi orduko, beti bezela, batean euskeraz bestean erderaz ots egin zuen:

—Inor badago? Ya hay alguno?

Akerrak etzion ezer erantzun eta grisk-grask atea itxita etxera yoa zan mutil ori. Gaututu gero, bigiraren batetik zetozen-emakume batzuk ots andiak, elizatik zetozenotsak, entzun zituen ta atera urbilduz adi adi zeuden barnekoa nor otezen yakin nairik: ala lapurren bat, ala Purgatorioko norbait... ala zena zelakoa.

Barneko akerrak atea adarka zabaltzeko. Bazerabilen dranbaladarik! Bigirazaleak izu gorritan lasterka ta asnaska apaiztegira yoa ziran! Eta apaizari.

—Don Jose Migel, don Jose Migel: esan zioten. Inpernuko etsaia dabil elizan. Betor konjuruak egitera, betor len bai len.

Apaizak, bi emakumeak lagun zituela, sakristauarenean ots egin zuen eta betik gora ta goitik bera, ataritik

apaizak eta leiotik sakristauak, izka-mizka luzea izan zuten.

Sakristauak bein ta bi ta iru aldiz esan zion berak etzuela bein ere konjuruatzen ikasi eta berak egitekoa bi emakume aiek egin zezaketela.

—Bainan adi zak, mutil. Ik eztek beste egin bearrik izango, urrutitxo agoela, nik esango dedanari *Amen* erantzun: Besterik ez. Ator, Luziano.

—Jauna: neri etsaiak eztit ezertariko bildurrik. Bi emakume oiei berriz, beti otoitzean ari dira-ta Jesus ta bat ala ere!

—Arren, atoz! Esan zion emakume bat orrek.

—Tori, Joxepa, giltzea ta or konpon.

Apaizak, zemairen bat eginez edo eztakigu nola, zutitu zuen beintzat sakristaua ta an zijoan beste iruren atzetxotik. Bitartean akerra ate-ondoan isil isilik zegoen, andik irten nai zuela. Laurak elizarira elduta, bi emakumeak otoitzean eta sakristaua atze-atzeka ari zirala, apaizak, *Aitarenen*, *Semearenen*... eginda, nekez bazan ere, sarraila-zuloan giltzea sartuta, gris-grask egin zueneko, akerrak bere adarretan artuz aidean zeraman parroku gaxoa.

Sakristaua antxintxika, emakumeak garrasiz zijoazten, apaizak itz auek entzunarazi zituenartean:

—Luziano, el akiti: inpernuko etsaiak nazeramak.

*Amen* —erantzunez, bere etxera igesi yoan zan Sakristaua.

(*Ernani'ko Maria Marka-gandik jasoa.*)



## ERROKETXO TA AMA

Beste asko bezela arrautza koskolez bizi omenziran ama ta seme. Semea erosko zan. Amak, orregatik, alako zana sinistu nai ez ta,

—I —esan zion bein semeari—, bizibidea ateratzen asi bear dek. Azokara yoan adi eznea saltzera. Isilenari ta «onenbeste emango diat, orrenbeste emango diat» orrelako berriketan eztabilenari emango diok ik ezne ori.

Bazijoan, bazijoan, bazijoan ta zakur aundi bat agertu zitzaion. Erroketxok, isilik zegoala ikusi zuanean, txantxilari estalkia kendu ta ezne guztia ari eman zion. Etxeratu zanean amak,

—Ori egingo uan, gaixo orrek? esan zion—. U-tsean (1) eznea inori eman? Errukiz bein edo bein orrenbeste egin ditekek, bainan zakurtzar bati?

Beste bein arrautzak eman zizkion amak azokorako.

---

(1) Arronan ezta esaten Arrasate-aldeko itz au. An ta inguruetan *debalde* esan oi da.

Tikitaka tikitaka saltzera zijoala, bidertzean arbola bat ikusi zuan, azala astoren batek edo kendua zuala. Hura ikusiz, larru gorrian ziranak yantzea errukisko lana zala ta arrautza guztiak klak-klask banan banan autsi ta beren gorringozuringoz arbola biloiza ederki yantzi zuan.

Etxera eldu zanean;

—Ori egingo uan, seme? —esan zion amak—. Etzak urrengoan orrelakorik egin. Zama bat buruan eramateak nekatuezkero, urren dan gurdian ezarri ta aurrrera.

Jostorratzak eroatera bidali zuan beste bein. Erosita, etxerakoan, gurdian bere ondoan zekarzkian Erroketxok jostorratzak. Etxera-orduko gurdiaren dardaraz erori ta guztiak galdu zitzaizkion.

—A seme! —esan zion amak itzultzean—, bada-kik orrelakoetan zer egin bear dan? Soka batez lotu ta ekarri.

Pertza bat eroatera bidali zuan beste bein. Erosi, soka batez lotu ta dandarrez etzeratu zuan, guztia zulatu ta mailatua.

—Seme, ori eztek orrela egiten —esan zion amak—. Bizkarrean, makila batean sartuta, ekarri bear uan.

Urrengo batean bae bat eroatera bidalita, Erroketxok makila lodi bat erdi-erditik sartuta, zulo andia erdian zuala eraman zion amari.

Gero ama aspertu zan ta etxean lagun bat bear zuala ta semeari.

Seme —esan zion bein—, oa goiko etxe artara ta ondo esanez ire emazte izateko neskaren bat ea ekartzen dekan. Orretarako onena jo zak begiz.

Erroketxok, goiko etxe artarako bidea artu zuanean, ardi bati begia atera ta eskuan zaraman. Dran, dran, atea yota sartuz, neskatxen arteko ederrena, zapla! , ardi-begiz aurpegian yo zuan. Lasterka irten bear izan zuan gizaigoak.

—Ori egingo uan, seme! —esan zion amak etxe-rakoan—. Ondo esanez, dantzan berakin eginda irabazten dek neskatxen biotza.

Lengo etxera Erroketxo urren agertu zanean, ama ilda zeukaten. Erroketxo dantzan asi zan. Bultzaka bidali zuten.

—Ori ere egin, seme! —esan zion amak— norbait ilik ikusiezkeroko dantzan eginbearrean, belauniko yarri ta otoitz egin bear izaten dek.

Urren yoan zanean, txerri ıla zeukaten erretzen, gero zatituz odolkiak egiteko. Erroketxok hura ikusi zuanean, belaunikatu, txapela erantzi ta bi eskuak batuta otoitz egin zuan.

—Urtean baino urtean aundiagoa, esaten dek ola-koetan —esan zion amak.

Yoan zan berriz ere. Nonbait ardibegiz yo zuan neskatxa hura bere begiz autatua alzeukan. Etxeko gizonari aunditsu bat sendatu nairik zebilzan bere alabak.

—Orrelakoak urtean baino urtean aundiagoak —esan zion Erroketxok.

Azkar ibili bear izan zuan osorik bere etxean sartzeko. Amak orduan:

—Len bai len igartu ditezela —esaten dek, kaiku.

Barriz neskatxengana joan zanean, arbolak txertatzen ari ziran etxe artakoak.

—Len bai len igartu ditezela —esan zuen mutil gaitzak.

Geiago ez agertzeko aginduaz irten zan andik.

Geroztik amak, bera nora, semea ara, erabiltzen zuan.

Aiek ondo bizi izan baziran, gu obeki bizi gaitezela.

(Arrona'ko Bernardina Iriondo'k kontatua.)

Antzerako bat da Murelagako Teri Ibarrolak “Begia bota batabateri” izenez kontatua, *Columbia*-k diskoz aterea.

## GUARIN

Aita zaldun batek iru alaba eukazan. Erregeren inguruko andikia zan bera ta sarri yauregian agertu bear izaten eban. Erregek, zaldun barriak egiteko asmotan ebilela, aita orreri.

—Zuk ze familia dozu? —itandu eutsan.

—Iru alaba, jaunà.

—Semerik?

—Bat, Guarin deritxon mutil eder bat.

Au entzueran, erreginak (sorgina edo erdi sorgina eizan bera) erregeri belarrira.

—Orrek eztauko semerik —esan eutsan.

Erregek zalduna bere etxera semearen bila bialdu eban. Larri yoan bera, etxerago ta larriago. Alaba zarrena ikusi eban lenengo, etxeratu zanean.

—Zer dozu, Aita, orren ilun etortzeko?

—Zer dodan? Erregeri semea daukadala esan dau tsat. Berak niri eroan dagiodala ta ni larri.

Bigarren alabaak itaune bardina eginda, aitak zarrenari legez erantzun eutsanean:

—Ori esan baiño ezalzan, aita, oba izango geuri senargai on bana ekartea?

Irugarren alabaak aitaren estutasunaren barri artuta,

—Aita, ez larritu —esan eutsan—. Neu yoango naz erregerengana mutil yantzita.

Badaoz bata ta bestea, aita-alabak, zaldiz, aurrera ta aurrera. Yauregiratu ta erregerenganatu ziranean, erregek emazteari ots eginda.

—Ona emen Guarin —esan eutsan—, zuk ezetz esanarren.

—Ori Guarin? Emakumea dozu ori. Bialdu egikezu arako landa andi aretara.

Landa aretan alde baten linoa egoan, bestean bedarra. Erregiña sorginak bere artean zinoan:

—Emakumea dan aldetik eztau linoa zapaldu nai izango.

Senarrari erakutsi eutsan gero uste au.

Guarin edo Guarintzakoa ara yoala. Ama Birjinea agertu ddakon.

—Zoaz linotzara —esan eutsan.

Linotzan lauroinka ebilen zaldizkoa.

—Aor bada —esan eutsan erregek emazteari—, linotzan dabil: mutila dozu ori.

—Ezetz, gizona ezetz. Esaiozu orain datorrela onantz ta zaldia barriro atondu dagiala. Zeuk ikusiko dozu. Emakumea dalako, korta-barruan atonduko dau zaldia. Mutila balitz, kanpoan egingo leuke.

Erregek orduan, zaldizkoari beragana dei eginda.

—Zoaz, Guarin —esan eutsan—, zoaz zaldiari ugel barriak ipintera.

Kortarantz yoala Andra Mariak barriro urtenda, egin bear ebana belarrira esan eutsan. Guarinek kortan ugel-billa sartu ta kanpoan zaldia eurakaz atondu eban.

—Badakutsu? —itandu eutsan erregek emazteari—; mutilla da.

—Ezta mutilla, neskäa baino. Dan iturrira. Ura badakar, nutilla da; ostean ez.

Txongila eskuan artuta iturriantza yoala, Ama Birjineak Mari-mutillari burubide auxe emon eutsan:

—Iturri-ondoko osinean suge bat ikusiko don, begiak zabalik, baiña lo. Eutsi eskura zume au. Onetxegaz, Aitearen eginda gero, ondo lotu egikena pisti ori zaldia-  
ren atzeko aldean, gero txongila ondo bete ta etorri adi yauregira.

Auxe yazo zan. Badatoz yauregirantza ta zaldi-ganeko suge lotuak barre-algara bat, gerotxoago beste bat, beste bat geroago. Txongildunak arriturik entzun eutsazan barrezantzo andiak. Andra Mariak barriro agertuta esan eutsan:

—Erregeren aurrera eldutakoan itandu egion sugeari barre-algarok zegaitik egin dabezan.

Orduko, yauregian, balkoirik andiengan errege, erre-  
gña ta ondorengo asko egozan. Ara elduta Guarinek erregeri zerbait esateko eskubidea eskatu eutsan ta eskubide ori artuta sugeari.

—Suge —esan eutsan—, zegaitik egin dozak iru barre-algarok?

—Lenengoa neure Ama Andrearen yauregiko tella-  
tua ikusi dodalako. Bigarrena neure Ama Andrea bere

senar erregeren alboan giltz guztien yaube eginda ikusi  
dodanean. Irugarrena zeu lakoxe dontzella batek (Andra  
Mariagaitik zinoan au) galdu nabelako.

Erregek, emaztea nor eban yakinda, yauregi-aurreko  
zabalean bertan su andi bat biztu-arazo ta antxe kiskal-  
du eragin eban emazte sorgina. Gêrô Guarin nor zan  
yakinda, beragaz ezkondu zan errege.

*(Lekeition entzuna, Dolores Etxebarria'ri.)*



## MARTIN SUGIN

Jesukristok Martin Sugini zorro andi bat emon eutsan. Edozeren yaube egiten zan Martin, zorro ori zabaldu ta itz onek esanaz:

—Jaungoikoak zorroan sartu dagiala.

Pozik ebilen batera ta bestera. Zaldun bat arkitu eban bein leio baten dirua kontetan. Martinek, bere zorroa zabaldua,

—Jaungoikoak zorroan sartu dagiala —esan ebane-ko, an barruan zaldunaren diru guztia.

Martin, Jesukristoren adiskidea zalako edo, Txerrenek sarri zirikatuten eban. Bein ziri ta ziri gogait eragin eutsanean, bere zorroa zabaldua,

—Jaungoikoak zorroan sartu dagiala —esan eutsan ari bere ta an eukan Kaltzagorri zorroan.

Au ikusirik badoa Martin sutedira ta txingura baten ganean zorroa ipini ta mailukada ikaragarriak emon eutsazan Txerreni. Txerren andik urtenda, igesi inpernura yoan zan.

Arik laster il zan Martin Sugin. Badoa zerura ta San Pedrok, inoren dirua txarto zorreratu ebalako, ezeutsan sartzen itxi gura. Badoa gero inpernura enda (1) Txerrenek Martin ikusita.

—Ea, mutilak —esan eban—: oratu inpernuko ateari, geu baino gogorrago bat sartu eztakigun.

Barrero zeruan yoan bear izan eban suginak. San Pedrok ezetz, ezeukala sartzen izteko usterik.

—Arren San Pedro! Neu ezpanozu artu gura, artu egizu, arren! neure zorroa, Jesukristok emonikoa dot eta.

San Pedrok bere eskutik zorroa artu ta ate-ostean itxi eban. Orduran Martin Suginek,

—Jaungoikoak zorroan sartu nagiala —esanaz, bat batera barruan sartu zan.

Arrezkero San Pedro azka eidabil, Martin zerutik zelan atara eztakiala.

*(Leniz'ko Gellano auzoko Juan Urrutiak kontatua.)*

---

(1) Eta-ren ordeaz sarri entzuten da Leniztarren aotik enda.

## TARTALO

Bekokian begi bakardun erraldoi, Sanson baino indartsuago bat, mendian bizi izaten zan, ardi ta gizaragiz elikatzen zala. Bein, mendira ardibila zijoan artzain gazte batek Tartalo zaritzaion erraldoi ori aurkitu zuen.

—Nora oa, mutilko?

—Ardi-bila.

—Etsomak (1) nere kobazulora.

Eta zulo artara yoan ziran. Mutila, ango gauzak ikusita, arri ta zur zegoen: laratzean zintzillika pertza aundi bat, giza-besoz ta iztarrez beterik. Zokoetan ardilarru ta gizon ta emakume askoen soinekoak.

—Sar zak, mutil, burruntzia sutan ta yan zak orra-ko istar ori ik ere yana izan bear det eta.

Artzainak bere artean zion:

—Naiz batera galdu, naiz bestera galdu, etzait ajolatik.

Bitartean Tartalo lo-korronka zegoen ta artzainak burruntzia gorria begitik sartu zion ta itsu geratu zan. Aren karraixi ta uluak! Mutila ardilarru artean gorde zan. Tartalo kobazulo-atean zegoan, istarrak erdi-zabalik

---

(1) Goazemak, goazen.

zituela. Ardiak bere istartetik kanpora zijoazten. Tartalok illean bakoitza ikutzen zuen.

—Galdua nauk —zion bere artean mutilak.

Burutasun on bat izan zuen: Tartalok ez ezagutzeko, bera ere ardilarruz yantzita igarotzea. Ala yantzi zan ta erraldoiaren istarpetik igaro zanean, bizkarrean ikutua- rren etzuen Tartalok nor zan igarri.

Andik atera zaneko, pozik ardilarrua yaurtiki ta arin ga asi zan. Tartaloren eraztunak izketan zekien ta yabea- ri esan zion:

—Tartalo tximinea: or zijoak mutila.

Tartalok eraztuna yaurtiki ta mutilari beatxikarrean sartu zion.

—Tartalo tximenea: emen neak, emen neak (2).

Tartalo mutilaren atzetik lasterka zijoan. Mutilak ezin kendu zuen beatzetik eraztun salataria. Aizto (ka- nibeta) batez ebaki zuen beatxikarra ta osin batera eraz- tun ta guzti yaurtikij zuen.

Eraztunak berriz ere:

—Tartalo tximinea: emen neak. Tartalo osinera blast zapart eginaz ito zan. Ta gero andik aurrera artzain hura nai bezela erara bizi zan.

(Manuel Antonio Arruebarrena Ataun'goak kontatua.)

Wentworth Webster'ek ere jaso zuan Tartalo'ri buruzko ipui au.

Cerquand'en *Tartare et les deux soldats*, 52 zenbakian, da- kar gai oni buruz.

Barandiaran'ok *El mundo en la mente popular vasca* (Edi- torial Auñamendi, Donostia, 1960), lendabiziko tomoan da- karzki Tartalo'ri buruzko zenbait ipui. Ikusi liburu onetan "La- mina bat eta Homeroren Kyklops" ete onen azpian doan oarra. Konturatuko zera au ere Uises eta Ziklopearekin zer ikusia duen ipui dala. (*Argitaratzaillare<sub>n</sub> oarra.*)

(2) Niagok.